

HERRI eta IRRI

x. amuriza

3/4. MAILA



ELKAR

HERRI eta IRRI

x. amuriza

3/4. MAILA

ELKAR

HITZAURREA

HERRI ETA IRRI era batera herria eta irria da. Euskal Herria. Herria etengabe egiten eta sortzen ari da. Pertsonaiak, ateraldiak, gertakariak. Hemen herri irrigarri eta irri eragile hori, umore eta pentsaera ironiko hori biltzen da. Ez txisteak! Hau ez da txiste liburua, errealitatean, batzutan azal azalean eta beste batzutan zazpigarren azalaren azpian aurkitzen duzun irri belarra baizik.

Sail hau EGIN egunkarian agertu zen 80ko irailaren 13tik 81ko azaroaren 21 arte. Lehenengo maila eta bigarrena argitaratuak dira. Hirugarren eta laugarren mailak datoz gaur eta Alfabetatzen laster, bilduma osoa burutzeko.

Esan beharrik ez dago egunkarian egiten genuen mailaketa hau hurbilpena besterik ez zela. Errezenetik zailenera, metoduen mailaketara hurbiltzen saiatu nintzen, baina berriak, gertaerak, ateraldiak eta esaerak bortxatu gabe. Hirugarren eta laugarren mailak bloke berean eman nituen, egunkarirako zatiketa gehiegi gerta ez zedin. Hemengo euskara ia euskara normala da, zailtasun batzuk bigunduta.

ABADIÑO - BIZKAIA

JAZINTO BARBERO

Oraingo Matiena orduan Traiña zen. Jazinto Barberok han zeukan bere bizartegia. Abarketagile ere bazen, baita bihotz zabalekoa ere. Inoiz bizarra eta ilea dohainik moztu eta gainera alboko tabernan berak ordaindu. Ameriketara joatea pentsatu zuenean, amak esan zion:

— Jazinto, Ameriketara nola joan behar duk hik? Orbela bezala dirua jausita ere, hik ezin duk aurreztu.

Behin abiatu zen eta Donostitik etxera itzuli zen, diruak urturik. Bigarren intentuan, ordean, lortu zuen joatea. Gehiago ez zen haren berririk. Gitarra jota bizibidea ateratzen omen zuen. Jairik jai eta neskaz inguraturik beti. Ameriketara zihoazen guztiakin bidaltzen zuten abisua Abadiñotik:

— Esan Jazintori ea buelta bat noiz egin behar duen.

Noizbait erantzun hau bidali zuen:

— Ahaleginak egiten ditut, baina zubiren bat egiten ez duten bitartean, ez daukat joaterik. Urez edo airez joateko dirurik ez dut biltzen.

Handik urteetara norbaitek galdetu zuen:

— Gure osabarena nork kobratzen du?

Ameriketatik erantzuna etorri zen:

— Nork kobratuko du, ba, sekula ez baitu lanik egin?

Jazinto Barberok ez zuen mundualdi txarra bota.

EZEKIEL ETA VILLA

Ezekiel eta Villa jatun handiak ziren. Medikuari lanen bat egin zioten. Ordaintzat nahi zuten afaria. Abadiñoako Abarketeroarenean zen afaria.

— Eman ondo! —agindu zion medikuak etxekoandrearari.

Jan zuten, bai, moduz. Gero medikuak deitu zuen:

— Deograzi! Nola daude?

Deograzik erantzun zuen:

— Ez daude ondo.

Medikuak agindu:

— Eman kafea eta koñak pixka bat. Oraintxe noa. Medikua joan zenean, Ezekiel eta Villa erdi lo zeu-

den, bete-bete eginik. Kafea hartu zuenean, Villak esan zuen:

— Ezekiel!

— Mekaguen la puñeta! Zer diok? —hotsegin zuen Ezekielek.

Villak orduan gogorrago esan zuen:

— Nork agindu dik kafea ekartzeko, jaten hasi baino lehen?

Medikuak Deograziri esan zion:

— Beno, banoa. Oneratu dira. Segi ematen bildur gabe.

SOLOA TXIKI

Abadiñoko Jose Soloa Txikik goizero bere zurrutadaxoa egin behar zuen, ohetik zuzen. Eta gero goizero etxe osterak prakak soltatzera. Neguan ere bai, hotza sana omen baita. Behin auzoko atsoa gari lapurretan ikusi zuen bere soroan. Soloa Txikik, ez ikus-tearren, buelta egin zuen eta lapurrari atzea eman ez, bere lantxoa egin zuen. Etxean ez zuen ezer kontatu. Gabonetan, bete-bete egin zen eta deskoidatu zen kontatzen. Andreak haserrez galdetu zion:

— Eta zuk zer?

— Nik buelta eman —esan zuen Soloa Txikik.

— Norbere gariak ostutzen utzi? —hotsegin zuen andreak. Orduan Soloa Txikik:

— Eta zer? Heurek zer daukate, ba? Gu baino hobeto al daude horregatik?

BIGAIA SUSARA

Etxe batetan bigaia susaratu zitzaien. Senar-emazteak eta morroia zeuden eta Marik gizonari esan zion:

— Lazaro! Bigaia zuzara da. Kasik etxeko idisko koxkorak ere hartuko du hau.

Hala erabaki zuten eta morroiak berehalaxe pres-tatu zuen plataforma. Simaurra altu samar harrapatu zuen idiskoak baina bizi-bizi zegoen eta dzanba egin zuen bere lana.

— San Antonio! —hots egin zuen Mariak.

Gizonak esan zuen:

— Bai, kaka! Ipurdiko zuloatik sartu dio!

Ezetz eta baietz, handik hiru astetara berriro susa-ratu zen bigaia.

EUSKARAZ ETA BELARRONDOKOAK

Soloa Txiki eta beste zenbait mutiko Belgikara eram zituzten gerratean. Bueltan, Irungo mugan, Soloa Txikiri diruak kendu zizkieten. Gero Durangon autobus batetan sartu eta Bilboko Miserikordiara eram zituzten. Gaua Miserikordian pasa erazi zieten.

Baina haiek zekarten etxerako pozaz, nork sosegatu? Argiak itzali zizkietenean, folklorea armatu zuten. Orduan «aceite ricino» sartu zieten moja batzuk. Bai gusto txarra ere! Baina okerrena biharamona zen, denak zirindurik baitzeuden.

Biharamonean etxekoren bat etorri eta bazihoazen trenean etxera. Bazen tartean gizon bat, bere semearen bila etorria. Baina haren mutikoa ez zuten egun hartan ekarri. Gizona «gure Martin» gora eta «gure Martin» behera zetorren trenean, euskaraz. Interbentoreak esan zion;

— *Hable usted en cristiano!*

Gizonak esan zuen:

— Zer esan dik horrek?

— Ba, erdaraz egiteko —esan zion lagun batek.

Baina jaramonik ere ez. Berriro gizona hizketan hasi zen:

— Gure Martin noiz bidaliko ote dute, ba? Gure Martin...

Berriro ere interbentoreak berdin eta lagunak:

— Erdaraz egiteko esan dik.

Baina jaramonik ere ez.

Hirugarrenean berriro:

— Gure Martin... —eta interbentoreak bli-bla eman zion belarrondoan. Gizonak ez zuen gehiago hitzik egin, ez trenean ez etxean, hamabost egunetan. Hamaika honelako gertatzen zen orduan.

HAURRIK EZ IZATEKO ERREZETA

Bi senar-emaztek bederatzi seme-alaba zituzten. Gehiago ez zuten eduki nahi. Zer egin? Otxandioko apaizarengana joan zen emaztea. Gerra ondoa zen eta apaiza erdaltzalea zen. Apaizak esan zion andreari:

— *Ocho días adelante y ocho días atrás.*

Hilekoaren zortzi egun aurretik eta zortzi egun atzetik esan nahi izan zion.

Andreak etxean senarrari esan zion:

— Hauxe eta hauxe esan dit apaizak.

Gizonak orduan esan zuen:

— Neu ere horixe pentsatzen nengoen. Gaur atzetik hasiko gara eta gero aurrera pasatu, ea non dagoen hutsa.

AHETZE - LAPURDI

BIXENTEREN KOMEDIAK

Bixente zen Ahetzeko gizonik ospetsuenetarikoa. Mutilzaharra zen baina ez mutil txarra. Poliki edaten zuen. Maiz bezala mozkortu zen eta poliziek zeramaten. Ahetzeko apezak ikusi zuen eta esan zion:

— Ai Bixente, Bixente tristea! Orain ere ba haramate?

— Nahiago dut hauek eramatea, zuk eramatea baino —erantzun zuen Bixentek, apezen hil eramatea adieraziz.

Bixentek bazuen beste anai bat, etxekoandre baten maizter zegoena. Hura ere mutil-zaharra. Gastu-irabaziak erdizka zituzten. Behia zezenarengana eramane behar zenean, zezen saria edo zezena ordaintzea etxe-

koandrearena zen. Behin honek dirua eman zion, behia eramane zuen, baina estali gabe (zezenik bota gabe) etxeratu zen. Etxekoandrearen zezen dirua tabernan gastatu zuten Bixentek eta biek. Biharamonean Bixentek etxekoandreari esan zion:

— Ai Mari, Mari!

Gure anaia baduzu bordari (nekezari)
ez duzu behirik izango ernari.

Beste behin apezak Bixenteri esan zion:

— Bixente, ikusi zaitut ostatuan, ikusi zaitut ferian, ikusi zaitut plazan eta behin ere ez elizan.

— Jauna —erantzun zion Bixentek—, toki guztietan batera ez ninteke izan.

Bixente hargintzan eta pintatzen ere ari izaten zen. Maistrak ea eskola pintatuko zuen galdetu zion. Hark baietz. Bukatu zuenean, maistrari (Ana zuen izena) esan zion:

— Ana, egin dut zuk aginduriko lana.

— Baina gizona! —hots egin zion maistrak, behean ere hainbeste pintura erorita ikustean—. Goian bezainbat jarri duzu behean.

— Bai! Eta dena prezio berean —biribildu zuen Bixentek.

ARIATZA - BIZKAIA

TXOTXO JEURI

Txotxo Jeuri saltsaria eta parrandaria zen. Kepa Enbeita Urretxindorraren aita zen. Hamazortzi urtekin ezkondu zen. Aurreko egun batez norbaitekin pelota apustua egina zeukan. Ezkontza egunean han ikusi zuen kontrarioa. Elizan sartu aurretik, partidua jokatu zuten. Norbaitek atzetik esan zuen:

— Hi beti izango haiz txotxo.

Geroztik *Txotxo Jeuri* zen betiko.

Txotxo Jeuriren anaia, Antolin, hogeita bi urtekin hil zen. Orduan hileta eta jana izaten zen. Etxerantzean, Txotxo Jeuri bertsotan hasi zen. Kepa Enbeita semeak esan zion:

— Aita, hori al da formalidadea, anaia hilda?

Eta Txotxo Jeurik erantzun:

— Potrozorri koñoa! Bera hobea zen ala?

TXOTXO, PEPILLO ETA PLOTA

Txotxo, Pepillo eta Plota tabernan elkarrekin ziren beti. Pepillo ez zen ardozalea, gozozalea baizik. Behin, nola edo hala, ardoari azukrea botata edo, Pepillo ere berotu zuten. Goizaldean etxerantz zihoazen. Etxe aurrean ermita bat zegoen eta Plotak esan zuen:

— Ermita honen lehenengo harria ipini zuenaren arima purgatorian badago, paternoster.

Eta Pepillok errezuari erantzun zion. Txotxo Jeurik albotik esan zuen:

— Arima hori zuen zain badago, ederki dago.

Gero Pepillo putzura zihoan zuzen.

— Kontuz Pepillo! Putzura hoa.

— Badakit —esaten zien Pepillok.

Eta putzura sartu zen. Hantxe freskatu zen haren berotasuna.

NOR GEHIAGO EGON

Astelehen iluntzea zen. Gernikatik bueltan, Txotxo Jauri Muxikako Taberna Barrin geratu zen. Tabernaria barru zela, afaltzea pentsatu zuten.

— Lehenago etxera doanak ordaintzea.

Besteek uste zuten Txotxok galduko zuela, idiak eta biharamoneko ardura baitzuen. Eseri ziren, afaldu zuten eta inor ez zihoan etxera. Egunak aurrera eta ostiralean Txotxo Jauriren andrea tabernara etorri zen.

— Zer gizona? Ondo?

Txotxok erantzun:

— Bai, ederki gaude.

Orduan andreak:

— Hemen dakarkizut muda bat. Etxeko lanak egin da daude eta egon lasai.

Tabernaria eta bestea bildurtu ziren eta amore eman zuten. Gizonak lau egunen buruan etxeratu ziren tabernatik.

ARRASATE - GIPUZKOA

PEDRO ATXAREN MOZKORRA

Behin Pedro Atxak mozkor ederra harrapatu zuen. Lagunek eraman behar izan zuten. Bergaretxe medikuak lagun haiei galdetu zien:

— Hau nolakoa da?

— Uh! Oso juergantea.

— Orduan laster konponduko dugu —esan zuen medikuak. Mozkorraren ondora makurtu zen eta esan zion:

— Aizu! Operazioa egin behar da.

— Operazioa? Ai gure Kasimira! —hots egin zuen Pedro Atxak.

— Ba, bai. Hau egin behar da. Ez dago denborarik. Handik egun batzutara Pedro Atxa sano zegoen eta esaten zuen:

— Medikuak tentelak dituk (dira).

MULTA ETA HASERREA

Norbaitek bizikleta gaizki utzi zion. Atxak agoazila ikusi zuen eta hari zarataka hasi zen, ezer jakin gabe. Agoazila ere haserretu zen eta gero hogeituroko multa etorri zitzaion Atxari. Atxa alkatearengana joan zen eta esan zion:

— Hau zer da?

— Neuk konponduko diat (dut) —erantzun zion alkateak.

Atxa lasai irten zen udaletxetik. Lagunen bati kontatu zion eta lagunak esan zion:

— Alkateak konpondu? Berak firmatu zian (zuen).

Gero beste lagun total (tartamutu) batek esan zion:

— Le-le-lehenbaitlehen pa-paga ezak (ezazu) eta gero pa-papera i-ipurdira edo ma-ma-markoan jarri. Jajantokian jarri eta di-di-ploma da-daukakela esango diate (dute).

ISILPOL TSA LABATIBAN

Atxak behin tifusa harrapatu zuen. Gaixorik zegoen eta arrebari esan zion:

— Hi, Martina. Ni joaten banaiz, isilpoltsa labati-

ban daukan.

Hala zeukan bere dirutxoa, andreak ez aurkitzeko. Arrebari esan zion eta andreari ez zion esan. Gero lagun batek Atxari esan zion:

— Ez heukan hiltzeko asmorik. Bestela andreari esango hion.

Beste behin, lehenengo sputnic hura bota zutenean, norbaitek Pedro Atxari esan zion:

— Kanpazartik pasatu behar dik (du).

Pedro Atxa dena sinestekoa zen eta Kanpazarrera joan zen. Ez dakigu zer ikusi zuen.

ARTEAGA - BIZKAIA

MANDOAREN HANKAK

Arteagan bazen gizon bat «Mandoa» esaten ziotena. Buru handia omen zeukan eta troko handia ere bai bekokian. Emazte fina eta langilea zeukan. Gizonak fama zeukan besteen gauzak hartzea maite zuela.

Behin emazteak etxeko erromada zabalik ikusi zuen. Ixtera joan zen eta langak falta ziren. Norbaitek eramanak ziren. Orduan madarikazio hau bota zuen:

— Kanaleko elizan, kredoan argiak piztean, hauek ostu dituenari, hankak igar dakizkiola.

Gero bere senarrari gertatu zitzaion hori.

HILDA GERO ERE

«Mandoak» ba omen zekien dagoen lekuan hartzen. Auzo batean astoaren soka behin baino sarriago falta omen zen. Beste horrelako gauza solteak ere arriskuan zeuden. Urteak joan ziren eta «Mandoa» hil zen. Gizona ateutean (zerraldoan) zeramaten beste mundura. Baina bidean zerraldoa apurtu zen. Pisuz leher egin zuen. Orduan soka bat behar zen, hura lotzeko. Asto bat zegoen bide bazterrean eta hari kendu zioten soka. Horrela geratu zen esaera:

— Hilda gero ere soka eraman.

KARGA-DESKARGAN

Arteagako auzategi batean argiak ipintzen ari ziren. Auzoak lanean ari ziren. Lanak aurrera zihoazela, errepidean batetik bestera pasatzeko unea heldu zen. Horretarako bi gizon hautatu zituzten, baimena ateratzeko. Gizon hauek aurretik ere lanak eginak ziren. Hasierean dirua lortu nahi zuten. Behar zen tokira joan eta, txapelak erantzirik, puruak erakusten zituzten. Baina ez zioten ezer ematen. Gero berdin egin zuten oilaskoekin joanda. Zarata asko, baina hala ere, ez zuten gau-

za haundirik ekarri. Gero errepidea pasatzeko baimen berezia behar zen. Gizonak Diputaziora joan ziren. Han erdaraz hitz egin behar zen. Honela azaltzen zuten:

— *Poste a la poste.*

Ez zieten ulertzen. Berriro ere:

— *Sí, hombre! Alambre poste a la poste.*

Haiek galdetu zieten:

— ¿Para cargar pinos?

Arteagako mandatariek erantzun zuten:

— *Eso la que sí.*

Horretan geratu zen auzia. Gizonak auzoko batzar-
rera etorri zirenean, esaten zuten:

— Putakerietan ibili gabe, joan hara bakoitza.

Ez zieten gauza zuzenik egin zuten antzik hartu. Es-
kerrak gero beste batek atzetik konpondu zuela. Pinuen
karga-deskargarako paperak atera zituzten.

MEATAKO IGERLEA

Duela ehun urte, Arteagako Naberansakoneko aito-
na Meatarra joan zen. Bueltan gauez, gizon bat topatu
zuen bidean. Aitonak esan zuen:

— Ilun dago.

Gizonak erantzun zion:

— Bai, laster ilunduko du.

5

Eta bat batean argitu omen zen gaua. Gizonak profezia hauek egin zituen:

- Suzko gurdiak eta airezko txoriak etorriko dira.
- Apaizetan ez dira ehunetik hamar onak izango, berez onak direnak baizik. Heurek galduko dute erlijioa. Aberatsak dirua kalera botako dute esanez: «Honexek galdu nau». Pobreak diru hura batzen hasiko dira, baina diru hark ez du balio izango.

- Balkoidun etxeak eta miradordunak, denak hondatuko dira. Negua eta uda ez dira igarri ere egingo, arboletan izan ezik. Prusianoak etorriko dira eta anaiak elkarren kontra hasiko dira. Soroak hilez beterik aurkituko dira eta hainbeste gorpu ehorzteko lurrik ez da izango. Handik bat, hemendik beste bat, batuko dira bizirik geratu diren apurrak eta esango dute: «Elkarrekin bizi gaitezen». Orduan jan nahi duenak lan egin beharko du. Alperrik izango da masoiei tiroak botatzea, arik eta elizako atak josi arte. Gero abarkadunek masoiak Erromatik kanpora botako dituzte. Sevillako kai gainean hamabi erreinuetako legeak egingo dituzte eta esango dute: «Oraintxe bizi gara ondo». Gero berriro txartzen eta okertzen hasiko da eta gero eta okerrago eta orduan azken juizioa izango da.

Geroztik ehun urtetara, aitonak Meatatik ekarritako profezia hauek gogoan dauzkate Naberansakonen.

ALEJA BIDAGINA

Aleja bidagina famatua zen Arteagan. Arteagatik Laidarako tartearen bere gain. Gizon txikia zen, baina asko behar zuena. Langile fina zen. Baina bai jateko eta edateko afana ere. Andreagatik esaten zuen:

— Joango balitz!

Orduan etxean bere gauzatxoak jateko. Behin ospitalera eraman zuten andrea. Alejak orduan makailo ederra jan zuen, nahi beste. Eta esaten zuen:

— Al pilpil ipini eta al txupin jan.

Zortzi seme-alaba zituen. Behin mutikoek zozokumeak ekarri zituzten. Ipin eta jaten ari ziren. Aitak zati bat eskatu zien eta mutikoek eman ez. Alejak esan zuen:

— Neuk ere harrapatuko ditut, ba.

Baita harrapatu ere hurrengo egun batez. Alejak berak bakarrik jan zituen, eta neskato-mutikoak albotik begira, begiak luze luze zituztela.

ATAUN - GIPUZKOA

SANANTON

Sananton famatua Idiazabalgo festetara joan zen. Ederki kargaturik, hango elizapean lo egin zuen. Bi-haramon goizean idiazabaldar batzuk:

— Hemen Sananton! Ataunen zenbat mozkor dira?

— Idiazabalen gizonak aina bai —erantzuten du Sanantonek.

— Eta Idiazabalen, zenbat gizon daude, ba?

Sananton jaiki zen eta erantzun zuen:

— Orain bat. Ni joandakoan bat ere ez.

MALANTONI

Sanantonen emazte Malantoni behia eraisten ari zen. Buztanaz (isatsaz) kolpea bota eta begia galdu zion. Malantonik hots egin zuen:

— Ene Praisku Antonio! Begia galdu dut!

Sanantonek orduan:

— Galdu baduzu, bila ezazu.

HILTZEKO SUERTEA

Sanantoni emaztea hil zitzaion, baita seme bat ere. Kanposantura joan zen eta esan zuen:

— Nire semea eta Malantoni tuertea. Ni baino lehenago hiltzeko izan zenuten suertea. Orain, zorrak paga hitzak hik, Sananton.

AZA LANDAREA

Sanantonek aza landarea erosi zuen. Bueltan Lazkaoko taberna batetan sartu zen, zaldia aurrean loturik. Eta zaldiak azalandarea jan. Sanantonek pare bat

egun etxeratu gabe egin zituen. Etxera bidean aza bu-
ruak hartu zituen nonbait. Malantonik esan zion:

— Baina gizona! Nik aza landarea esan nizun!

Sanantonek orduan:

— Bai, baina ba al dakizu noiz erosi nituen? Bidean
haziko ziren. Orain eltzean sartzeko hobeki dauzkazu.

MANDATARI TOTELA

Beasaingo bikarioak ataundar bati esan zion:

— Etxeruzkoan, Lazkaoko fraileetara joan eta esan
nik eskatutako meza bihar goizean, Santo Kristoren ka-
pillan izango dela.

Ataundar hura totela zen eta honela entregatu zuen
mandatua:

— Bibikario jajaunak mamandatua beberak memez
za Sasantokristo kaka pillan.

HAIEK TIRATZAILEAK

Ataungo taberna batetan tolosar ehiztari bat esaten ari zen hirurogei metrora basurde bat hil zuela, gero beste bat eta hala. Ataundar batek esan zion:

— Zuek tiratzaile onak izango zarete, baina Muñoak Afrikan egin zuenik nekez egingo duzue. Mendi banatan bi jarri, tiratu eta balek bide erdian elkar jotzen zuten. Behin Muñoa lehenbizi tiratzen deskoidatu zen eta besteari kainoi puntatik bala sartu zion.

EROETXEKO ATEAN

Beste ataundar batek, lanik ez egiteagatik, edozer egingo zuen. Santa Agedako eroetxera eraman zuten. Agoazilak eraman zuen eta gizonak atean esan zion:

— Orain hemen karaikruz botā beharko diagu zein geratu, hi ala ni.

SEKUNDINO ETA JOXE MARI

Sekundino eta Joxe Mari mendi lanean ari ziren. Baso lanak amaiturik, Lizarrustiko bentara joan ziren. Mutil-nagusiak ziren.

— Zer daukazu jateko? —galdetu zioten bentandreari.

— Arraultzeak.

— Ekar batzuk —agindu zioten.

Bentandreak lau arraultze ekarri zituen, bakoitza-
rentzat bina. Zeinek baino zeinek gose handiagoz, el-
karri edukazioz esaten hasi ziren:

— Hik hartu —batak.

— Hik hartu —besteak ere.

Azkenean Joxe Marik hartu zuen aurrenen eta hi-
ru arraultze hartu zituen. Sekundinok orduan esan zion:

— Har ezak hau ere —eta etxeakoandreari—: Ekar
niretzat beste lau.

KOXKA ETA APAIZ JALEA

Koxka Beasaingoa eta itzain mordo bat eraman-
ekarrian ibiltzen ziren. Ataundarrak tartean ziren. Be-
hin Gasteizen bazkaltzen ari ziren. Mahaian apaiz bat

gertatu zen, jale handia bera. Koxka ez zegoen gustora, hark asko hartzen baitzuen. Halako batean esan zion:

— Jemasiao, señor cura, jemasiao! — sudurretik hitzegiten baitzuen.

— Hori al da errespetoa apaizekin? — esan zion Teilazpik. Koxkak erantzun zion:

— Ah! Heuretik emaiok, heuretik!

JULIAN ZAHARRA ETA MARTIN

Julian Zaharra eta Martin beti elkarrekin egoten ziren tabernan. Gau guztia tabernan egin zuten eta noizbait etxera bidali zituzten. Kanpoan Julian Zaharrak esan zuen:

— Ea, Martin, goazen etxera, eguzkia atera dik eta.

— Txotxo! Hago isilik, ilargia duk eta.

Gaztelau bat goitik behera zetorren eta biak zutik egon ezinik zeuden. Martin zaharrak esan zion:

— Oye, bobo nasimento. Este txotxo dise que eso es sol. Yo luna. ¿Qué es eso?

— Yo, zeñore, perdonen, pero no zoy de aquí.

Julian Zaharra jokalaria eta zurruteroa zen. Martin Olea zurruteroa bakarrik. Iratin elkarrekin luzaro

egonak ziren, lanean. Artikutzan ere nahiko arkume
janak ziren. Egunero arkumea jaten zuten, han non-
bait harrapaturik. Gero erru guztiak Martinek jaso zi-
tuen deklarazioetan.

BAIGORRI - NAFARROA BEHEREA

DUBLEX TOKEROA

Baigorriko Dublex tokeroa zen. Tokeroa astoaren ibiltzen denari esaten diote. Astoa erabiltzen duena. Behin Dublexi galdetu zioten:

— Zu nongoa zara, Battixta?

— Ni Heleta Garaiko semea, Baigorriara airealdan etorria.

Dublexek aldatu zituen, bai, aireak, baina ez izatera. Zahartu zenean, tokerotza lan zaila zen. Arraultze eta gazta erosten ibiltzen zen asto batekin. Astoa kabestrutik, kokoletan gaztak eta eskuetan sarea, arraultzez betea. Behin, Bortzirietako barreretan, astoari tira eta tira ari zen. Okilanberro zaharra pasoan gertatu zen eta esan zion:

— Ah, Battixta! Hor herori baino handiagoa ha-

tzeman duk.

— Ez, ordea, hi ainakoa. Arre! —erantzun zuen Duplehek.

DUBLEX ETA MAISUA

Beste behin Duplek, Sohotako zelaian, txerri andana (talde) batekin heldu zen eta Esteot aurkitu zuen. Esteot hau Irulegiko maisua zen eta Duplexi esan zion:

— Bazatozte andana bat.

— Bai eta beti emendatzen (gehitzen) ari —erantzun zion Duplehek.

DUBLEX HILZORIAN

Duplek Izpurako erietxean zegoen. Oso gaizki zegoen gaizoa. Hil aurrean, erietzeko nagusiak esan zion:

— Battixta, mementu serioak dira hauek. Zerbait esateko edo eskatzeko baldin baduzu, oraintxe da tenorea (ordua).

— Bai. Orain zulo egileak —erantzun zuen Dubble-
xek hitz erdika.

XARLES OSPITAL

Xarles Ospitali auzo batek galdetu zion:

— Moztuko al didazu ilea, Xarles?

— Ez, ez —erantzun zuen Xarlesek—. Neurea ere
besteei egin erazten diet.

— Nork kendu dizu bizarra, Xarles? —galdetu zion
beste behin lagun batek Ospitali.

— Ba, mozturik dauden horiek neronek —erantzun
zuen Xarlesek.

BERA - NAFARROA GARAIA

BEREKOETXE MATEMATIKARIA

Berekoetxe mozkorra zen, baina bere burua matematikari handitzat zeukan. Nahizta ezer ez jakin, edozein gauza matematikaz emateko joera zuen.

Behin esan zuen:

— Gaur arratsaldean, Alzateko erromerian, atzo Berako erromerian baino ehuneko hirurogeita hamabost dibertsio gutxiago izango da.

Gero galdetu zioten:

— Aurten zenbat animazio izan da, bada?

Eta Berekoetxek erantzun:

— Aurten iaz baino ehuneko hogeita bost gutxiago izan da.

Gero berak ehunetik ehuneko mozkorra harrapatzen zuen eta denak ongi.

MARI TERTXERO

Maria eroari Tertxero esaten zioten. Norbait izorratu beharrekoa zuen beti. Fraile eskolapioak begitan harturik zituen. Fraileak haren leihopetik paseoan pasatu ziren batean, Tertxerok goitik oihu egin zien:

— Delia bere maitalearekin joan dela? Ederki egina.

Eta pixontzi bat hustu zuen fraileen burura. Delia hori karabineroen sargento batekin joana zen, eskandalu ederra herrian utzirik.

Tertxerok beste apaiz bat ere gorroto zuen eta pregoi hau jotzen zuen herrian:

— Don Alejandrokin ez konfesatu. Horrek ez du indarririk ere eta apaiza joatean, bekatuak berriro lehen-go lekura etortzen dira.

GAUEZ EMAKUMEAK KONTUZ

Bazen sineskera bat gaua emakumeentzat patu txarrekoa zela. Baserri batetan hala ere, neska bat gauez

subila hartu eta iturrira joan zen. Joan zen, baina ez zetorren. Zain zegoen aita, estutzen hasia. Orduan norbaitek tximinitik subila (ontzi bat) bota zuen eta oihu egin:

— Gauezkoak gauezkoentzat, subila zuretzat eta Argatako alaba niretzat.

KONTRABANDISTAK KANPOSANTUAN

Kontrabandista bat kanposantu ondoan zegoen. Bere lagun bat gurdiarekin etortzeko zain zegoen. Baina lagunaren aurretik goardiak etorri ziren.

Gizona kanposantuan izkutatu zen. Goardiak kanposantuko orma kontran kokatu ziren. Bazuen orma hark zirritu edo zulotxo bat eta barrukoak palutxo batez goardia bati trikornioa zirikatu zion. Goardiek laster ihes egin zuten, izuturik.

BERRIATUA - BIZKAIA

JOAN TXIKIREN HANDITASUNAK

Joan Txikia «sasikoa» edo seme naturala zen. Igeltseroa zen eta etxerik etxe lanean ibiltzen zen.

Behin etxe batetan zegoela, azti edo iragarle bat etorri zen atera. Etxeko alabak esan zuen:

— Ama! Hemen aztia dator. Hiru txakur txikirengatik, familiako joan-etorri guztia esaten du.

Joan txikia ere atera joan zen eta esan zuen:

— Aztia al zara? Zenbat kobratzen duzu?

Aztiak hiru txakur txiki erantzutean, Joan txikiak esan zion:

— Ba, hogerleko bat emango dizut nire aita nor zen esateagaitik. •

APAIZAREN NESKAMEA

Apaiz batek bere neskamea Logroño aldera bidali zuen. «Haizeak hartzera» esaten zuen berak. Baina jendeak ez zuen osasunagatik zenik sinesten, beste asuntogatik baizik.

Joan Txikia etxe batetan igeltsero lanean ari zen. Neska bat etorri zen eta atean esan zuen:

— Ave Maria!

Orduan Joan Txikiak barrutik:

— Aurrera kaderia, izterra nahiz bragetia.

Hain zuzen apaiza pasatzea gertatu zen eta esan zuen:

— Joan! Hori al da familiako guraso baten hizketa?

Joan Txikiak orduan:

— Zuk segi zure bidean aurrera. Guk ez dugu oraindik inor haizeak hartzera bidali.

JOAN TXIKIAREN BORONDATEA

Hauteskundeak ziren antxina. Joan Txiki boto biltzaile zebilen eta botoa hiru mila erreal ordaintzen zen.

Gorozikako gizon batek mila pezeta nahi zituen. Emaztearentzat hiru mila errealak ere tentagarri ziren,

baina senar burugogorrek ezetz. Orduan emazteak esan zuen;

— Nik honelako gizonari barrabilak moztuko nizkioke.

Joan Txikiak esan zion:

— Ondo esan duzu, Sandios! Moztu egin behar zaizkio. Neuk egingo dut astean buelta bat.

DENA GATZA

Joan Txikiak ez zuen zoparik eta lapikokorik maite. Zartagikoa maite zuen.

Sukalde batetan lanean ari zen eta amak lapikoari gatz egin zion. Gero alaba etorri zen eta hark ere bai. Orduan Joan Txikiak ere, bakarrik geratu zenean, esku bete gatz bota zuen. Eguerdian ez zegoen hura jaterik. Joan Txikia isilik.

— Zuk ere gatz bota al diozu? —galdetu zion amak alabari.

Honek ere baietz. Orduan Joan Txikiak esan zuen:

— Pentsatzen nuen, bai, zer lapiko zen, zettorren guztiak gatz botatzeko.

Hura bota eta zartagikoa jarri behar. Orduan bai pozik Joan Txikia.

DIMA - BIZKAIA

TXAHAL BELARRI HAUNDIA

Dimako etxe batetan, Olazabal auzunean, emakume alargun bat bizi zen haur txikiekin. Astoa eta behia ernari zeuden. Biak elkarren ondoan loturik zeuden. Goiz batez emakumea kortara joan zen eta behiak atzeko aldean txahala zeukan. Txahal hila zen, denbora bete aurretik egina. Orduan baserritarren «hermandadeak» izaten ziren, elkarren arteko ganadu aseguro bat bezala. Emakumea joan zen eta esan zuen:

— Behi beltzak txahal hila bota digu.

Legea zen bezala, hermandadeko lau maiordomo eta listeroa ikustera joan ziren. Korta iluna zen. Txahal hila ikustean, maiordomo batek esan zuen:

— Jeesus! San Antonioren izenean, hau izango zen txahala, denborak beteta jaio balitz. Honek dauzka belarriak.

Handik hilabetera, emakume gaixoa berriro hermandadera joan zen eta esan zuen:

— Gure behi beltzak txahala egin du. Astoa daukagu antzu eta harena izango zen.

EMAZTEA SENARRAREN LAPUR

Dimako gizon bat Laudioko feriara joan zen, behi bat eroatera. Oinez joan eta oinez etorri. Tratua egin zuten eta saltzaileak esan zion:

— Portatzen bada, gaur hamabost ekarri dirua. Bestela ekarri behia.

Hamaboskarren egunean, gizonak galdetzen dio emazteari:

— Zer, Sabina? Behia zer moduz?

Emazteak erantzun zuen:

— Ba, poliki. Esnea ematen du eta beste batek ere zerbait izango du.

— Orduan dirua eraman beharko da bihar —esaten du senarrak.

Etxe hartako erlojua ilargia izaten zen. Biharamon goizean emazteak senarrari dei egin zion, esanez:

— Ilargia haitz puntan dago.

Gizona jaiki zen eta, maletatxoa eginik, abiatu zen. Emazteak atean esan zion:

— Bildur naiz bueltan etorriko ote zaren.

— Bildur? Zeren bildur? —galdetu zuen senarrak.

Gizona bidean zihoan. Emazteak, galtza zahar batzu jantzirik, aurea hartu eta alto eman zion. Gizonak behiaren diruak eman zizkion eta etxeruntz itzuli zen. Lapurrak berriro ere atzetik hots egin zion:

— Eh, gizon! Ipurdian mun eman behar didazu.

Gizonak horixe ere egin zuen. Etxera heldu eta hots egin zuen:

— Sabina! Ireki! Neu naiz. Lapurrak irten zaizkit.

Emazteak erantzun zion:

— Hori gezurra da. Nire gizonak ez dauka lapurren bildurrik.

Halako batean emazteak atea ireki zion. Geroago esan zion:

— Ai gure gizon balientea! Neu izan naiz lapurra.

Gizonak orduan esan zuen:

— Bai, arraioa! Atzean mun ematean, bart afaritan janiko arbi gara usaina hartu dizut.

ESKALEA KOMENTUAN

Eskale zahartxo bat aterik ate zebilen eta komentu batetara jo zuen. Fraile batek atean saria eman eta esan zion:

— Jagon bazkal ordua eta gurekin jango duzu.
Eskalea pozik joan zen. Limosna eta gainera baz-
karia. Eguerdian, ordu-orduan heldu zen komentur-
a. Fraileekin mahaian eseri zen. Fraile batek esan zion:

— Erreza paternoster bat.

Fraileek errezatzen zekien probatu nahi zuten. Agu-
reak ondo errezatu zuen. Gero fraile batek galdetu zion:

— Nongoa zara zu?

Eskaleak erantzun:

— Ni Dimakoa. Durungokortakoa.

Fraileak:

— Diman baziren, ba, kokoak lehenago.

Eskaleak:

— Bai, jauna. Baziren eta denak fraile sartu ziren.

HAMASEIKO GORRIA AHOAN

Dimatar bat Urkiolara joan zen. Bere zorrotxotik
ardoa atera eta hamaiketakoa egiten ari zen. Hala ze-
goela, gizona batek esan zion:

— Aizu, gizona. Hamaseiko gorri bat daukat sa-
kelean. Elizan, hainbeste jenderen artean, lapurra ere
berdin jartzen zaizu ondoan eta bildur naiz. Edukiko
a¿ didazu pixka bat zerorrek?

Dimatarrak esan zion:

— Ez dakit, ba. Zu bildur eta nik gorde? Zuk zer dakizu lapurra naizen ere?

Besteak:

— Ez. Zuk ez daukazu lapur antzik.

Dimatarrak:

— Gorde ezazu ahoan. Hortxe daukazu seguruen, elizan ez baituzu hitz egin beharrik.

Gizonak, dimatarrak ez ziola hartu nahi ikustean, zerbait egin behar.

Hamaseikoa ahoan sartu eta bazihoan barrura. Baina hara elkarrizketa hura ijito batek entzun zuela eta dirudunari atzetik segitu zion. Ijitoak elizako atean sekulako iskanbila eta eskandalua armatu zuen, esanez:

— Hamaseiko bat eduki dut eta hementxe erori zait. Bila ari naiz, baina inon ez dago. Honexek dauka!

Ijitoak ahoan hamaseikoa zeraman gizona seinalatzzen zuen.

— Honexek dauka! —berriro ere.

Gizonak ere nola edo hala bere burua defenditu behar eta esan zuen:

— Ez!

Baina orduan hogerlekoa ahotik erori zitzaion. Ijitoa oihuka hasi zen:

— Ikusten duzue?

Jendeak, hori ikusi zuenean, gizonari bizkarra berotu zion, lapurtzat. Ijitoa laster bistatik aldendu zen. Gizon gaixoa jipoi ederrez eta sakel hutsez etxeratu zen, San Antoniori eskerrak.

ELGETA - GIPUZKOA

ORAINTXE SINESTEN DUT

Bazen elgetar parrandari bat, eguna kalean pasatu eta goizaldean maiz etxeratzen zena. Behin auzo lanean ari ziren, ira lanean. Afaldu eta beti bezala, berandu zihoan etxera. Sakana batean «fiuuuu!» entzun zuen eta txakur batek «uau, uau» egiten zuen. Gizonak pausoa bizkortu zuen eta hotsak hurrago ziren. Beheko erre kara heldu zen, bere soroetan gora abiatu zen eta hotsak gero eta hurrago. Etxera heldu zen eta atzeko leihotik sartu zen. Sekula bildurrik izan ez omen zuena.

— Zer gertatzen da? —galdetu zioten.

— Oraintxe sinesten diat (dut) —erantzun zuen.

APAIZAREN MADARIAK

Angiozarko mutiko batzuk madariak ostu zituzten apaizaren baratzean. Gero konfesatu beharra heldu zen eta apaizari berari konfesatu behar, besterik ez baitzen. Bildur ziren mutikoak. Konfesioa amaitu zenean, elkarri esan zioten:

— Hi, honek ez ziguk (digu) galdetu non. Berari jan behar zizkioagu (dizkiogu).

Elizatik irten eta berriro apaizaren madarietara joan ziren mutikoak.

ONAK ETA TXARRAK

Elgetako Zabalak artasoro ederra zeukan. Apaiza pasatu zen eta esan zion:

— Bai gauza ederrak egin dituela Jainkoak.

— Txarrak ere bai, jauna —erantzun zion Zabalak— Anbotoko haitza etab.

— Horiek ez dituk txarrak, Zabala.

— Artoa ereiteko ez dira ederrak, jauna.

— Baina ikusteko ederrak dituk.

— Ikustekorik ederrena besteak lanean ikustea izango da, jauna.

SARGENTOA ETA ITZAINA

Bazen Elgetan sargento zahar bat mikelete zegoe-na. Egurra ekartzea pentsatu zuen eta itzain bati ho-tsegin zioten. Eguneko lanak egin ondoren, afaltzen ari ziren. Sargentoak alaba bat piano jotzailea zeukan eta jotzen hasi zen. Musika hastean, itzainak etxeko an-drearekin dantzan egin behar zuela tematzen zuen. Sar-gentoak, ordea, burua leihotik behera botako zuela eta gogor ari zen.

— Zer dauka, ba, dantzaldi bat egiteak? —esaten zion andreak sargentoari.

— Utziozu bota dezala —esan zuen itzainak—. Na-hikoa egiten dugunean jasoko dugu, ondo hilda bal-din badago.

ELORRIO - BIZKAIA

KANDIDO ETA KANDIDA

Kandido Tutilla famatua zen Elorrion. Oso indar gutxikoa zen. Etxerik etxe ibiltzen zen, lan apur bat jan truke eginez. Laiaketan egiteko, egun bat edo bi aurretik joaten zen, jatera. Bruza eta milraiazko galtzak erabiltzen zituen. Baina bai gizon kurioa bera. Eliz atarian egoten zen, meza baino ordu erdi aurrerago. Harrian sudurzapia ipini, galtzak ez zikintzeko, eta jendea pasatzen ikusi. Meza ondoren ere berdin, aberats plantak eginez. Neguan bufanda handia erabiltzen zuen. Orduan horrelakorik apenas erabiltzen zen.

Kokolo samarra zen eta Kandidaz maitemindu zen gaixoa. Hura elizara zetorreanean, Kandidok ur bedeinkatua ematen zion. Etxeraino ere jarraitzen zion eta Kandidok esaten zion:

— Batera, batera!

— Tontoak atera! —erantzuten zion Kandidak. Maiteak ez zion jaramonik egiten eta gure Kandidok mutilzahar geratu behar izan zuen. Laiaketara joaten zenean, zerbait jaten zuen, baina disimuluan, gonbidatu bezala. Hura ez zen nornahi. Besteek azpil beretik jaten bazuten, hari plater berezia jarri behar zitzaion, nahizta gero mokoak eskuaz kendu.

Behin neskazahar bat San Juan kaleko iturrira etorri zen. Apaizengandik gaizki esaten ari zen neskazahar hura. Kandido Tutilla erdi edanik zegoen. Lagun batzuk heldu zioten eta neskazahar haren gainean ipini zuten. Lagunek goitik sakatu eta neskazaharrak azpitik atximurka egiten zion. Aurpegia katuak pasaturik bezala geratu zitzaion. Hura eskandalua eta neskazaharren iskilimina. Kandido beste munduan batu zen bere Kandidarekin.

TXORI

Txori zen beste elorriotar famatu bat. Edale handia. Ez zeukan beste gaitzik. Baina apenas beste onik ere. Haren andreak aste guttia harropak garbitzen ematen zuen, txanpon batzuk ateratzeko. Txorik xaboiak ere saldu egiten zizkion, tabernarako dirua behar baitzuen.

Ezkonjiran ere joan ziren eta bueltan galdetu zieten:

— Zer moduz ibili zarete?

— Donosti eta San Sebastian eta denak ikusi ditugu —erantzun zuen andre gaixoak. Ikuztegian (labaderoan) Mari Praderak berriro galdetu zion:

— Zer moduz beste hori?

— Apurtu gabe —erantzun zuen Txoriren andreak.

— Gure Leonek harrapatu bahindu! —bota zion Mari Praderak. Hura ere bazen norbait.

EREÑO - BIZKAIA

EREÑARRAK FORURA

Ereñarrak Forura joan ziren konfesatzera. Forun fraileak zeuden. Joan zen, ba, ereñar bat eta fraileak galdetu zion:

— Nongoa haiz?

— Ereñokoa —erantzun zuen besteak.

Fraileak orduan:

— Ereñokoa? Zuek horixe egiten duzue. Herrian konfesatzeko baino bekatu handiagoak egin eta gero auzora etorri behar. Eta herrikoak hor, zuen atzetik, belaunburuak apurtzen.

Hala ere konfesioa hasi zen eta fraileak galdetu zion:

— Zer daukak, ba?

Ereñarrak pentsaturik zekarrena esan zion eta orduan berriro fraileak:

— Nahikoa daukak, bai, ez daukakela pentsatzen baduk ere.

SERMOI EDERRA

San Migelak Ereñoko jaiak. Kanpoko sermoilaria ekartzen zen. Meza entzun zuten, eguerdiko armonia ere bai eta gonbidatuak etxera. Mahaikada jendea zegoen. Gizon batek esan zuen:

— Sermoi ederra gaur.

Bete-bete egin zen, koloreak gorritu zitzaizkion eta «sermoi ederra» gora eta «sermoi ederra» behera zebilen. Halako batean galdetu zioten:

— Zer esan du, ba?

Eta gure gizonak erantzun:

— Ez dakit.

ERRONDA HUTSA

Ereñoko mutil batzuk errondan joan ziren etxe batera. Neskak zeuden etxe batera mutilak joateari «erronda» esaten zitzaion.

Egin zuten, ba, erronda hura, neska-mutilek elkarrekin ordu batzuk pasatu zituzten eta mutilak etxeruntz zetozen goizaldean. Mutil batek, etxera heltzean, esan zuen:

— Guk egin dugu egitekoa!

Norbaitek galdetu zion:

— Zer egin duzue, ba?

Eta mutilak erantzun:

— Garretan erretako urdaia jan, arimak kondentatu, gaua galdu eta besterik ezer ere ez.

Nornahi gonbidatzeko moduko erronda.

ZER PASATU DA EREÑON?

Ereñon mutil bat arbitan zebilen. Etxean arrebak alai samar zebiltzan eta nebari zerbait egitea pentsatu zuten. Leihotik arbi sorora hots egin zioten:

— Eh! Ba al dakizu zer pasatu den Ereñon hamai-
ketatik hamabietara?

Besteak sorotik:

— Zer pasatu da, ba?

Arrebek ez zioten erantzun.

Orduan mutil gaixoa, arbi zarea bizkarrean zuela, arin eta arnas estuka etorri zen etxera.

— Zer pasatu da, ba? —galdetu zuen berriro.

Eta arrebek erantzun:

— Ordubete.

Halako astinaldia hartu zuten gero neskek.

EZKIO - GIPUZKOA

ATANAXIO

Ezkion eta inguruan Atanaxio famatua zen. Organista titularra, kanpai jotzailea, abokatua edo zerbait ikasten ibilia ere bai. Behin Tolosa ondoko herritxo bateko gizon bat etorri zen iluntzean tabernara. Ezkio goian dago eta beheko tabernan zen hori, errepide nagusiaren ondoan.

— Hemen al dago Ezkioko idazkaria? —galdetu zuen gizonak.

— Zein idazkari? —galdetu zuten ezkiotarrek.

Horrela hitzegin ondoren, bat hiru durorengatik idazkariaren bila joateko prestatu zen. Atanaxioren bila joan zen. Atanaxiok ez zuen sinesten. Goiko tabernatik telefonatu eta etsi zuen. Atanaxio karpeta handi bat galtzarbean zuela etorri zen.

— Hauxe da zure zain dagoen gizona —esan zioten.
Atanaxiok gizonari esan zion:

— Goazen gora.

Goian biak bakarrik hizketan hasi ziren eta gizonak kasua azaldu zion: Semeak etxetik bidali nahi zuela.

Orduan Atanaxiok esan zion:

— Hara, ba. Joan den astean eduki dut kasu berdina. Aita zaharra eta biok joan ginen, semearen atea jo genuen eta nik mutilari esan nion:

— Hemen gatoz aita eta biok gauzak konpontzera. Mutila harro jarri zen esanez:

— Zer konponketa, ordea?

— Orduan nik danba begi ondoan jo eta behera bota nuen. Jesukristo neure Jauna esan erazi nion eta gehiago ez zuen txitik atera.

MEDIKUARENEAN

Atanaxio zahartu samarra zegoen. Trenak jo eta bota zuen eta besoa atera zion. Erdi ezgauza geratu zen gizagaixoa. Iluntze batez afari bat zen Ezkion eta Atanaxio gonbidatu zuten.

— Zer moduz besoa? —galdetu zioten.

Orduan Atanaxiok hauxe kontatu zuen:

— Hamabostero Donostiara joateko agindu zidan

medikuak. Bostehun pezeta kendu eta ez zidan begiratzen ere. Beste hamabost egunera berdin. Halako batean, nazkatu nintzen eta bazka ondoren joan nintzen, ondo janda. Medikuak berdin egin nahi zidan, baina nik esan nion:

— Oiga, no he estudiado medicina y cirugía. Yo he estudiado organística y abogacía. Pero a mí no me diga que aquí no hay nada, porque esto está sano.

Beste besoa erakutsi omen zion, hura sanoa zeukalata. Orduan bai begiratu omen zion ondo medikuak.

APAIZ BERRIAREKIN

Atanaxio organu jotzailea eta kanpai jotzailea zela esan dugu. Apaiza aldatu zuten. Praktikanteak esan zion:

— Aizu, Atanaxio. Hala moduzko gauzak aditu ditut, ba. Zer moduz zabilta apaiz berriarekin?

Atanaxiok erantzun:

— Zu medikuarekin bezala.

HARAGI JATE APUSTUA

Behin Jose Lopetegi bi aldiz afaldurik etorri zen tabernara. Bonifazio diputadua han zen eta Lopetegi tentatu zuen, bi aldiz afaldurik zegoela jakinik:

— Jale handia izango haiz, baina oraintxe zeinek gehiago jan hamarna duro.

Jose Lopetegik apustua jaso zion. Diru gordetzaile Patxi jarri zuten. Lopetegik haragia gordinik jango zuen eta diputaduak erreta. Erretzen hasi ziren eta bosna xerra ekarri zieten. Lopetegik gordinik ere santiamen batean platera garbitu zuen. Bonifazio ez zen hain jalea, baina inguruko lagunak eta mahaiepeko txakurrak eta abar, xerrak norabait ezkutatu zituen.

— Zer dago gehiago jateko? —galdetu zuen Lopetegik.

Arkume laurden bat zegoen eta huraxe erdibitu zuten. Bonifaziok Lopetegiri esan zion:

— Aparta nahi duzuna.

Lopetegik izterra aukeratu zuen eta bi ekinalditan garbitu zuen.

Gehiago zer? Arkume burua zegoen eta bera erreta. Orduan hau Bonifaziok jateko geratu ziren eta Lopetegik oilo erdi gordinik. Ez zuen oiloak denbora askorik egin haren hortzetan. Baina nonbait begiak zabalago zerabiltzan eta zerbaitez konturatu zen. Bonifaziori esan zion:

— Nondik sartzen dituk hik haragiak?

— Hemendik! —zintzurra seinalatuz, Bonifaziok.

Eztabaida beroa sortu zen eta bakeak egiteko, jandako haragiak ordaintzeko plana egin zen. Bien artean hogeita sei duroren haragia jan zuten. Garai haietan! Lopetegi hogeituro ordaintzeko prest zegoen, besteak sei ordaintzen bazituen. Baina diputaduak ezetz, irabazi egin zuela eta. Biak ordaindu gabe aldendu ziren.

Gero Garizuma edo paskoazkoa heldu zen. Lopetegi konfesioa egin eta tabernara sartu zen. Patxiri esan zion:

— Paskoazkoa egin diat, baina ez negok gustora.

Patxik, diru gordetzaile egin zuenak:

— Ezta neu ere.

Hartan Bonifazio sartu zen, konfesatzera zihoala esanez. Patxik esan zion:

— Geldi, geldi! Lehenbizi hementxe egin behar diagu konfesioa. Zuk, Joxe, —Lopetegiri— lehengo hitzari eusten al diozu?

Lopetegik:

— Bai. Honengatik ez, baina zuregatik bai.

Patxik:

— Orduan zuk hogeituro eta besteak derrigor ordainduko du. Eta gainera litro bat ardo multatzat, lehen onartu ez zuelako.

Erabakitzeokak erabaki ondoren, tabernako sukaldera sartu ziren. Lopetegik denentzat kafeak eskatu zituen. Kafeak afaldu gabe? Berdin zen. Hiruna kafe hartu ondoren, Patxik freskeran arkume bat ikusi zuen eta hots egin zuen:

— Kontxita! Arkume horrek zer egiten du hor?
Eta huraxe janez, goizalderarte gelditu ziren hiru-
rak. Haiek ziren paskoazkoak!

GABIRIA - GIPUZKOA

JOAN LASAREN EZPALAK

San Roke egun batez Joan Lasari bere iloba Luzio Gabiriak esan zion:

— Osaba, goazen mezatarara.

— Ez —esan zion Joanek—. Gaur koinatua eta biok Mutiloa aldera goaz, kamamila biltzera. Ez dugu askorik bilduko, baina hogeina kilo bilduta ere, bildutakoa bildua izango da.

Joan Lasak kontu eta zenbaki guztiak buruz egi-ten zituen. Hileta bat ordaintzera joan zen eta apezak papera erakutsi.

— Hori niñetzat alferrik da. Zenbat da kontua?

— Honenbeste —esan zion apezak.

— Ez, hori gaizki dago. Hori gehiegi da.

Eztabaida gogorra hasi zen eta Joan Lasak esan zuen:

— Jo ezazu meza honenbeste. Estandarteak honenbeste. Kantariak honenbeste. Monagiloari ere emaiotzen beste honenbeste eta hemen hauxe ateratzen da. Lazkaoko eta Gabiriako fraileek zuk baino merkeago egiten dute.

— Horiek egiten al dute on? —galdetu zuen apezak haserreturik.

— Horiek egiten al dizute gaitz? —Joan Lasak haserreago—. Ba, niri horiexek egiten didate on. Hemen duzu tokatzen zaizuna. Dirua badut. Baina hau beste apezari emango diot, zuk ez diozu emango-ta.

— Bada gurean animalia bat —esan zuen beste behin Joan Lasak— urte guztia jaten eta libra bat mejoratzen ez dena.

Zer izango ote zen eta kanarioagatik esan zuen hori.

HAMALAU ESTAZIOAK

Latinez Via Crucis zena, euskaraz gurutzebidea edo kalbarioak edo hamalau estazioak esaten zen. Gabiriatik trenan pasatzen da eta garai hartan apeadero bat egin nahirik zebiltzan. Zantegiko Benito hiltzen zegoen. Ape-

za ekarri zioten eta konfesatu ondoren penitentziatza hamalau estazioak egiteko agindu. Benitok orduan esan zuen:

— Nola egingo ditut, bada, nik hamalau estazio, denon artean apeadero bat egin ezinik bagabiltza?

GALDAKAO - BIZKAIA

INDARRA ETA BIZKORTASUNA

Galdakao orain handia eta jendetsua da. Gerra aurrean ez zen horrelakoa. Herritxo bat zen. Herriko plaza inguruan udaletxea, eskolak eta taberna bat zegoen. «Taberna Nagusia». Fidel Bikandi zen hango tabernaria. 120 kilo zituen gizonak. Baina ez pisu ustelik. Haren indarra eta bizkortasuna oraindik ere gogoan daude. Berrogeita hamar kiloko harria atzamar txikiarekin aisa jasotzen zuten mostradore gainera.

Norbaiti apustu egin zion harri hura berak hankapetik baietz gehiago bota, bestek gainera baino. Jokatu zuten eta Fidelek oin baten alde kendu zion. Bizkorrean ere ez zen gutxiago.

Tratulari batek, halako gizontzarra ikusirik, tentatu zuen:

— Ariniketaldi bat egingo al diagu?

Egin zuten eta Fidelek erraz irabazi. Trataria ez zen plazara luzaroan agertu.

Taberna Nagusia ostatua ere bazen. Beti egoten ziren hamarren bat ostalari, dinamitakoak. Bat «Durango» esaten ziotena zen, pulstura eta saltoan trebea. Biak ehun kilotatik gora ziren. Ostatuko salan egiten zituzten aprobak eta beti oholak konpontzen ari zen Fidel, han-hemen adabakiak ipiniz. Handik urteetara, ohola kendu eta, hormigoia botatzean, hamaika txanpon eta intxaur agertu zen ohol azpian.

FIDEL AMERIKETAN

Hamazazpi urterekin Fidel Bikandi Ameriketara joan zen. Hilabete egin zuen bidean eta hamazortzi kilo irabazi zituen. Esaten zuen:

— Jan eta egon, zer egingo nuen ba?

Lehenengo ingelesez ikasi zuena «urdaiazpikoa eta -arraultzeak» izan zen. Bazen han amerikar indartsu bat, zaldi eta abar aproba guztiak eginak zeuzkana. Berrogeita hamar kiloko lau zaku elkarri loturik jasotzen zituen. Fidel gaztea eta berria zen, baina jokorako berrotu zen. Eguna heltzean, esan zuen:

— Lotu bost zaku, laurekin aproba egina dut eta.

Eta 50na kiloko bost zaku jaso zituen. Marka hura orain ere han dago inork ondu gabe. Handik urteetara, amerikar bat baino gehiago etorri zen Taberna Nagusira Fidel ezagutzera. Ez da harritzekoa.

«Puta latakoak» eta «puta sikuak» jaten omen ziren han (fruta latakoak esan nahi zuen). Behin, ordea, berak ere bildur galanta pasatu zuen. Trumoi izugarriak jo omen zuen, pinuak ere ezpalduz. Mendiko artzantzaren bakardadean, «zeru guztia behera» omen zetorren. Lagunak esan zion:

— Hori hemen korrientea duk.

Fidelek lasai itxura egiten zuen, baina halako bildurrik ez omen zuen sekula pasatu.

Txakur bat ere bazen Taberna Nagusian «Lista» izenekoa. Baita izan ere. Hiltegian arratoia ugari zen. Listak arratoiak berak hil eta ehorzten zituen. Baina buztana kanpoan utzirik. Gose zenerako.

GARIZUMA

SERMOIA ETA SERMOI ONDOA

Auzoan misioak ziren. Apaiza elkarren maitasunaz, elkartasunaz, eta horrela ari zen. Eta galdetu zuen:

— Gauza horretan zer moduz zabilzate auzoan?

Emakume batek, ermitako jende guztiari begiratu, esan zuen:

— Guk hemen, jauna, bista ederra eta elkar ikusi ezin.

Parre algara baten ondoren, sermoia edo hitzaldia aurrera zihoan. Apaiza senar-emazteen elkartasunaz ari zen. Apaizak esaten zuen:

— Hori ere aipatu beharra dago. Ez da errez sines-tekoa, baina badira gizonak, andreari tratu txarra ematen diotenak.

Hain zuzen orduantxe gizon bat sartu zen elizan.

Eseri zen eta alboko lagunak esan zion:

— Puntu puntuan heldu haiz. Hori hiretzako duk.

Fama zeukan andrea gaizki tratatzen zuela. Gero apaizak esan zuen:

— Elkartasunak lagunartea ere esan nahi du. Lagunartean txanpona ere soltatu egin behar da. Badira tabernan eskua nekez poltsikora sartzen dutenak. Norbaitek ordaintzen badu, ederki edan.

Orduan andre jotzaileak ziri hura sartu zionari esan zion:

— Hori hiretzako duk.

Eliza oso txikia eta auzokoak oso ezagunak izanik, animazio ederrean zihoan sermoia. Gero kanpoan, arte azpian, gehienak han geratzen ziren berriketan: Gizon batek apaizari esan zion:

— Gaurko apaiz gazteon martxarik ezin dut ulertu. Lehen apaiz guztiek zeukaten neskamea. Oraingoak, ordea, bakarrik bizi dira, itxuraz behintzat.

Apaizak esan zion:

— Hain zuzen horretaraxe etorri naiz, ba. Ea misio hauetan bide batez norbait libre topatzen dudan.

Gizonak orduan, inguruko emakume eta neska guztiei begiraturik, esan zuen:

— Uuuuh! Auzo honetan ate guztiak joko dituzu, baina bakarrik lo egitekorik apenas topatuko duzun.

Apaizak: — Nork esan dizu bakarrik lo egin behar-ko duela?

Gizonak: — Ah! Horrela baldin bada, ez daukazu ate guztiak jo beharrik.

Haiek ziren misioak eta ez Xenpelarrek kantatzen zituenak.

HARATUZTE

Garizumako ostiraletan haragi jatea bekatu latza zen. Apaizak gizon bati konfesioan galdetu zion:

— Haratuzteak errespetatu al dituzu?

Gizonak: — Bai, jauna.

Apaizak: — Nik zerbait aditu dut, ba, lehengo ostiraletan zuen etxean haragia jan zela.

Gizonak: — Ez, jauna. Gure etxean ez da haragirik jaten. Gure etxean irentsi egiten da.

ARDI KATOLIKOA

Etxe batean ardia hil zuten, garizumako ostiraletan.

Apaizak: — Nola jaten duzue ardia haratuzte egunez?

Gizonak: — Jauna, gure ardiak ez du belarra besterik jan.

GOIZUETA - NAFARROA GARAIA

ANIZETO ETA ASENTSIO

Tolosan trontzalarien apustua zen. Goizuetarrak Urnietarren kontra. Goizuetako «txakurtxotarrak» nagusi geratu ziren eta marka izugarria egin. Oraingo txapelketan, aurten, zortzi segundu gutxiago egin dute. ¿Baina nolako egurrak?

Asentsiok eta Anizetok mendian lan egiten zuten. Tolosako apustura joan ziren. Irabazi zuten eta gero kalean kaka egin zuten. Baina goardia zibilek harraptu zituzten. Anizetok Asentsiori esan zion:

— Hi, hiri galdetzen badiate (badizute), esan «por-kulo eta barrengo lastikua». (Lastikua: atorra edo).

Galdetu zioten eta Asentsiok hori esan zuen. Baina goardia zibilek berriz ere galdetu eta egurra eman

egin zioten. Orduan Asentsiok:

— No, no, no. Asentsio Perurena, Txakurtxokoa.

HOSTIAS!

Anizeto oso borondatetsua zen. Asentsio, ordea, pixka bat zuhurra edo eutsia omen zen. Biak autobusean zihoazen. Geraldin batean Anizetok esan zion:

— Hi, basoerdi bana edan behar diagu (dugu). Naranja ederrak ere bazeudek (badaude) hemen. Bana jan-go al diagu (dugu)?

— Bana ez. Bina jan behar diagu —esan zuen Asentsiok.

— Hi, ongi zegok (dago). Baina bakoitzak berea ordaindurik.

— Hostias! —hotsegin zuen Asentsiok eta bat ere jan gabe autobusera itzuli ziren.

TXIMISTAK BIZKARRETIK

Asentsio harrobi batean lanean ari zen. Bazeukaten han txabola bat, kanpai gisakoa. Eguraldi txarretan hiru edo lau lagun aurrean, aterpean, egoten ziren eta besteak euritan. Asentsiok esan zuen:

— Sandios! Ederki moldatuko ditiat (ditut) nik horiek.

Bost metroko metxa txabolaren bueltan jarri zuen, gero sua eman zion eta dzist-dzast bizkarretan zehar. Hura hankajokoa egin zutena aterpean zeuden pibilegiatuek. Egun bitan ez ziren agertu ere, esanez:

— Munizioak sua hartu dik (du).

ZUBIA DILINDAN

Bazen zubi dilindari (kolgante) bat Goizuetako ibaian. Asentsio erdian dindan jarri zen eta zazpi lagun atzetik zetozen. Zubian zintzilik zeuden. Estuasun haren ondoren, lagun batek esan zuen;

— Asentsio, egin duk orain ere. Zer egingo huen (zenuen), denok putzura erori bagina?

— Hara, Jose. Gurutze Santisimoa! —esan zuen Asentsiok—. Arranbidetik kanalez kanale joan, Kaxe-

terori deitu eta esango nion: eutsi, mutilak, hementxe helduko dituk (dira) denak.

Hura zen borondatea, Kaxeteroren une hura kilometro bat beherago baitago.

PARET EDERRA

Goizuetan «gorozketariak» esaten da. Gorotza edo simaurra zabaltzen dutenak. Baserri batean gorozketariak ziren eta Herrero ere harako zen. Gaizki ulerturik edo, goizean joan zen, baina arratsaldean joan beharra zegoen. Baserriko gizonak esan zion:

— Etorri haizenez gero, bazeukat (badaukat) nik lana. Hor alor horren bueltan egingo al duk pareta?

Herrerok baietz esan zion. Harlantzan inoiz egin gabea zen. Baina harriak pilatzen hasi zen eta pareta egin zuen. Eguerdian bazkaltzen ari ziren. Etxeko mutikoa eskolatik etorri zen eta esan zion:

— Herrero! Zuk eginiko pareta, dena erori da.

Herrerok erantzun zion:

— Zer uste duk, ba? Betiko egina zela?

URA SENDAGARRI

Goizuetar bat ohean zegoen. Medikua ekarri zioten, araketa egin zion eta esan zuen:

— *Esta noche voy a estudiar.*

Bera berriz etorri arte, koilare bete ur bakarrik emateko agindu zuen. Biharamonean medikurik ez zen agertzen. Mediku gaztea izan zen hori esan zuena eta bera herritik joan egin zen. Gizona koilare bete urez eduki zuten, lehengo mediku zaharra etorri arte. Hau duk sendatzeko martxa.

GALTZAK ASKATURIK

Bi goizuetar ehizara irten ziren. Urria zen eta goiz giro ederra. Bietariko batek galtzak askatu nahi zituen. Lan hori larrean egitea gustatzen zitzaion eta han geratu zen bere habian, bere arraultzea egiten. Beste laguna aurrera zihoan, atzekoa falta zela ohartu gabe. Goitik behera bi sasoiko neska, bi ahizpa, zetozen goizeko arrosariora. Gizonak neskei esan zien:

— Beheruntz al zoazte? Zakurrak katea galdu dit hor. Ea aurkitzen duzuen.

Bi ahizpak pixka bat jetxi ziren eta kate bila hasi

ziren, guztia sinetsirik. Honetan, beste ehiztaria aurkitu zuten, galtzak askaturik eta makurturik. Neskek kate kontua aipatu ziotenean, hark, zutiturik, esan zien:

— Hemen ez dago katerik. Hemen potroak daude! Potroak!

BIDE HAU NORA DOA

Goizuetar bat bere etxeko atarian zegoen. Auto eder bat aurrean geratu zen eta gizon eder batek galdetu zion:

— *Oiga, buen señor*. Nora doa bide hau?

Goizuetarrak erantzun zion:

— Hogei urte daramatzat nik hemen eta oraindik ez doa inora. Ez da mugitu ere.

KARDOREN LANAK

«Kardo» oso famatua omen zen. Gogorra, edalea eta apustu zalea ere bai. Behin, goizaldeko ordu biak ziren eta Kardo ederki bustia zegoen. Bat batean, hi-

tzak berotu ziren eta apustu egin zuen:

— Leitzara baietz joan eta etorri bost ordutan.

Goizuetatik Leitzara hogeit hamar kilometro daude. Beraz, joan etorrian berrogei. Kardo etxera joan zen eta esnearekin bi talo jan zituen, baita sagardoa edan ere, ez zegoen baraurik baina. Goizeko seiretan abiatu zen. Ezkilak bigarren aldiz seirak jota abiatu zen. Bueltan hamaikak jo zituen eta Kardo han zetorren. Bigarren hamaikak jo aurretik iritsi zen gizona. Apustu hau egin zuenean, adinean nahiko aurrera zihoan Kardo. Horrelakoxe gizona zen.

MENDIAN LANEAN

Kardo zuhurra edo zikoitza omen zen. Behin Domiña Motzarekin ikatza egiten ari zen. Domiñak esan zion:

— Bizimodu urria dago eta babak olio gabe jan beharko ditugu.

Orduan Kardok erantzun:

— Olio gabe jatekotan, gatzik ere ez.

HURA ZIRINERIA

Beste behin, Kardo basora joan zen, bere zekotea edo fardela bizkarrean zeramala. Lagun talde bat ondoan lanean ari zen. Lagun hauek berekin lan egiteko eskatu zioten Kardori. Hala egin zuen eta, beraz, haiekin jan zuen. Kardok bere jana iturrian utzi zuen. Bi-haramonean janari hura mindua edo garraztua zegoen nonbait, bero ikaragarria egiten baitzuen. Kardok jan zuen eta gaitz egin zion. Beti alkandora gabe ari izaten zen lanean. Egun hartan galtzarik ez ezer gabe. Biluzik ari zen, abarka hutsez. Zergatik? Egundoko ziri-neriak eman zion eta horrela ez zeukan noiznahi askatzen ibili beharrik. Bi lanak batera.

KARDO GAIZKI

Kardo zuhurra edo zikoitza omen zen. Behin oinetakoak ormatu (izoztu) eta gaizki jarri zen. Apaizak elizakoak eta oliadurak eman zizkion eta galdetu zion:

— Zer moduz, Joan Jose?

Kardok kurrinka bezala egiten zuen:

— Ooorrr!

Apaizak:

—Ulertzen badidazu, keinu egin eta aski da.

Kardok:

— Ooorrr!

Apaizak esan zuen:

— Honenak egin du.

Ematekoak eman eta bazihoan apaiza. Etxekoek esan zioten:

— Jauna, terrenoak eta abar nola geratzen diren ere aipatu beharko zaio, ba, semeak eta hemen baitira.

Apaizak, berriro joan, eta esan zion:

— Aizu, Joan Jose. Badirudi Jainkoak beregana eraman nahi zaituela eta terrenoak eta gauzak semeei nola utzi pentsatu nahi baduzu, nik egingo dut bitarteko.

Orduan Kardok hotsegin zuen:

— Ooorrr! Aizu, jauna! Ni ez naiz pixka batean hilko.

Biharamonean Kardo baratzean lanean ari zen.

HELETA - NAFARROA BEHEREA

ERDI XOROA

Antxarteta deitzen zaion eskualdean, bazen mutil-zahar bat erdi xorora edo zozoa zena. Gainera bazekien jendeak zer pentsatzen zuen eta zer esaten zuen ere bai. Behin auzoko sorotik bere etxeke sorora artoak botatzen ari zen. Norbaitek ikusi zuen eta esan zion:

— Aizu. Zergatik ez dituzu artoak botatzen zuen etxeke sorotik auzoko arto sorora?

— Ai gaixoa! —ihardetsi zuen besteak—. Ni erdi xorora bainaiz! Hori egingo banu, xoro osoa nintzateke.

ETXAGUNA ETA ETXAZAINA

Habiako auzategian Etxauz eta Iturburu izeneko baserriak dira. Etxauzkoak etxezainak edo maizterrak eta Iturburukoak etxagunak edo etxe-jabeak ziren. Orduko Iturburuko nagusia oso xuhurra edo zikoitza zen eta behin esan zion Etxauzi:

— Ai! Ez dakit, baina uste dut aurten oso lusagar gutxi izango dugula, jatekotik erein baitugu.

— Guk ez dugu zuek hainbat hartuko —ihardetsi zion Etxauzek—, guk ereitekoak jan baigenituen.

AZKONA ETA MAMUA

Heletako plazan, «Ferlankatea» ostatuan, Santa Katalinetako ferietan, bi gizon elkarrekin gertatu ziren. Heletarra bata, «Mamu» goitizena zeukana eta Irisarrikoa bestea, «Azkona» goitizena zeukana. Azkona edo azkonarra piztia bat da, artoa oso maite duena. Mamua fantasma edo horrelako zerbait da. Heletarrak esan zion irisartarrari:

— Aizu! Ez dakit zer egin. Azkona ari zait artoan.

— Ez dakizula zer egin? —erantzun zion irisartarrak. Ezarri mamu bat eta laster izutuko da azkona.

JOKOA ETA KAKAGALEA

Behin Heletako bi Heguetar Garaziko merkatura joan ziren. Egun guztia han elkarrekin iragan ondoren, bi ezterenzubitarrekin musean hasi ziren afal ondoan. Heguetarrak denak galtzen ari ziren eta bazuten diru pila polita jokaturik. Manexek esan zuen:

— Nahas itzazue kartak. Pix egitera noa.

— Bai gizona —esan zion lagunak—. Hoa nahi badauk kaka egitera ere.

Gure Manex pix egin eta Heletara etorri zen, laguna han utzirik. Beste heletar hura, galdutako diru guztiak ordaindu ondoren, oinez etorri zen gauez Garazitik Heletara. Oinez etorri, baina ez omen zen kakagaletu.

IHOLDI - NAFARROA BEHEREA

ILARGIRA ETA ELIZARA

Behin Iholdiko apaizak honelako predikua egin zuen:

— Ene kristau bihotzekoak. Ilargia non dagoen ba al dakizue? Ba al dakizue zer den ilargira joatea eta berriro etortzea? Begira, bada, Amerikarrak joan ziren eta esana zuten ordurako zuzen jaitsi ziren. Hain urrun joan eta zuzen eta ordu-orduan itzuli ziren, minutu bat gora behera. Hemengo jendea, ordea, sekula ez da elizan sartzen orduan eta zuzen. Nola liteke hori, ene kristauak?

Alkat bertsolaria etxerantz zihoan eta Lorentzo artzainak galdetu zion:

— Zer esan dik apaizak predikuan?

Alkatek apaizaren predikua azaldu zion. Eta Lo-

rentzok erantzun zuen:

— Bai! Haiek esana zuten ordurako jaitsi dituk (dira), gogotik jaisten baitziren. Gu ere hola ginduzkek (ginateke) bai elizarako, gogo onez joango bagina.

MUTILZAHARRA ETA MUTIL GAZTEA

Iholdiko elizan meza izan zen. Elizatik kanpora irtetean, mutil gazte batek ur bedeinkatua eskaini zion mutilzahar bati. Mutilzaharra umoretsua zen. Elizako atean ur bedeinkatu ontzia egoten da. Han hatz puntak busti eta aitaren egiten da. Batak besteari ematea ere izaten da, batez ere jende asko batera irteten denean. Horrela zen gure mutilen trantzea. Mutilzaharrak gazte haren gizalegea ikusirik esan zion:

— Kontent negok (nago). Pozten nauk (naiz). Hi ere noizbait gizonduko haiz noski.

Orduan mutil gazteak erantzun zion:

— Bai, baina ez nuke zurekin maiz egon behar.

MUTIL TXIKIA ETA NESKA HANDIA

Iholdiko taberna batean dantzaldiak edo erromeriak egiten ziren lehenago, larunbat-igandetan. Dantza eskatzen dutenak mutilak izaten dira. Behin mutil txiki txiki batek neskatil handi bati dantza eskatu zion. Neskak esan zion:

— Ez, eskerrik asko. Ez dut haur batekin dantzatzeko asmorik.

Mutilak orduan erantzun zion:

— Haur beharretan dagoen neskatila etxean egoten da.

LAURO - BIZKAIA

ASLA

Asla laurotarrak badu hamaika ateraldi. Zerbait galdetzen bazaio, beti uste ez den lekutik erantzuten du.

— Zuen aldetik gariak zer egiten du? —galdetu zion lagun batek, gariaren prezioa jakin nahirik. Eta Aslak erantzun:

— Han hirina eta zahia.

Laurotako jaiak San Migelak izaten dira. Jaietan, meza ondoren, neskak dantzan ari ziren plazan.

— Nortzuk dira neska horiek? —galdetu zion Aslari lagun batek.

— Neure alabak.

— Orduan goiz ezkondu zinen zu.

— Ez ba! —esan zuen Aslak—. Eguerdiko hamaiak inguruan.

Beste behin, Sondikako abadeak Asla pasatzen ikusi zuen eta hura tentatzea pentsatu zuen. Kanpandorre bat baino gehiagotan ikusten da sasi edo zuhaixkaren bat. Sondikan ere bazen zerbait eta abadeak Aslari esan zion:

— Gauza bat, Modesto. Kanpandorreko sasi hori zegan (zer preziotan) jaitsiko zenuke?

— Heurok (beroiek) ebakitzen badute, debalde —erantzun zion Aslak.

MUTIKOA BELARRIETATIK

Laurotar bat mutikotan Laukizen egon zen, aitonarenean. Laukizko abadeari mahatsa ostu omen zion. Konfesatzeko ordua heldu zen eta mutikoak aitortu zuen:

— Mahatsa ostu.

— Non? —galdetu zion abadeak. Mutikoak ez zuen halakorik itxaroten.

— Mahatsa ostu! —esan zuen berriro mutikoak.

— Hori entzun diat. Non ostu duk?

— Berorren ortuan —esan behar izan zuen.

— Hi izan al haiz?

Abadeak mutikoari belarrietatik heldu eta astinaldi ederra eman zion. Atzetik ziren beste mutikoek, hori

ikustean, aldegin zuten.

— Horiek ere izan al dituk? —galdetu zion abadeak.

— Bai, jauna. Horiek nik baino gehiago —esan zuen mutikoak, hala libratuko zelakoan.

— Ba, orain, horiek aldegin dutenez gero, heuk hartu beharko dituk denak.

LAZKAO - GIPUZKOA

JOKOA EZ DA ERRENTA

Hiru lazkaotar Tolosara joan ziren pelota partidura. Trenbidetik oinez zetozen diru guztiak galdurik. Gaua zen eta Legorretako tunelean atrakadoreak bidera irten, esanez:

— Alto! La bolsa o la vida!

Hiruretatik batek esan zuen orduan:

— Baneki bost duro poltsikoan ditudala, jota bertan hilko nikek (nuke).

AZKEN PEZETA

Beste behin ere lazkaotar batek denak galdu zituen Donostian. Pezeta bat geratzen zitzaion poltsikoan eta hura ere Urumea ibaira bota zuen, esanez:

— Hoa hi ere (zoaz zu ere) besteak joan diren lekura.

TRIPAKIAK

Gizon honek beste behin diru guztiak galdu zituen frontoian. Bueltan, hala ere, tabernan sartu zen eta Jazintari galdetu:

— Zer daukazu?

Tabernandreak erantzun:

— Ez dago askorik. Tripakiak edo.

Orduan jokalariak:

— Ba, ez! Horiek Donostian jan ditut.

(Bere tripak alegia, hainbeste galdu ondoren).

EHIZTARI JUBILATUA

Ehiza asko maite zuen. Jubilaturik zegoen gizona. Behin Lazkaomendira abiatu zen ehizara. Txakurrak nobedadea somatu zuen, baina ehizeak ihes egin zion. Txakurrak artasoro batetara saltatu zuen eta han ari zen atzera eta aurrera korrika. Ehiztaria ikustean, etxe-koandrea erritan hasi zitzaion:

— Altuna, Altuna! Txakur horren isatsak (buztanak) arto guztiak bota behar ditu.

Orduan Altunak erantzun zion:

— Bai! Neu ere horixe pentsatzen nengoen, nireak ainako mugimendua baduela.

ALTUNAREN MUEILEA

Lazkaotar batek Elgetako lantegi batetan lan egin zuen. Lazkaora etorri zen batez, Altunari galdetu zion:

— Zer moduz, Altuna?

Hau urteetan aurrera zihoan eta erantzun zuen:

— Ondo, baina mueilea izorraturik.

Besteak esan zion:

— Nik badut errepostukoa.

Lazkaoko erretorea tartean zen, baina hark ez bide zuen antzeman asuntua nondik zihoan. Erretore hura Bergarara destinatu zuten. Handik Elgeta hurbil izaki, Altunaren mueilleaz gogoratu zen.

Elgetan lan egiten zuen lazkaotarrari esan zion:

— Aizu! Altunari mueille bat agindu zenion. Egin al zenion?

Besteak orduan, zer esan ez zekiela, erantzun zion:

— Koño! Piezak Alemanian daude eta oraindik ezin izan dudala konpondu esan.

Gaineko egun batez, berriro Lazkaon, apaizak Altunari esan zion:

— Zu, Altuna! Manolori mueille kontua esan nion eta esan zidan materialen zain dagoela eta lasai egoteko.

Orduantxe argitu zen guztia eta denak barrez. Altunak esan zuen:

— O, o, o! Nork esango luke apaiz hauek tituluak direla? Hamabi urte karreran horretarako.

OIARTZUN - GIPUZKOA

BEHARRA, BEHARRA

Oiartzungo etxe batean baziren sei senide. Gerratea zen eta gosea ere bai. Mutilak gerran ziren eta hiru ahizpa zeuden etxean. Egun batez aitonak neska bat hirin bila bidali nahi zuen. Neskak hamabost urte zituen eta esan zion:

— Baina, Aitona, nik nola ekarriko dut, ba, hirina?

— Bai, neska. Hirina astoak ekarriko din. Errotariak kargatuko din eta hik bidean zaindu bakarrik.

— Baina bidean zorroa erortzen bazait?

— Ez kezka. Mendian «Beharrari» deitu hik.

Joan zen neska bere astoarekin eta bueltan, Sananton aldean, hirurogei kilotako zakua lurrera erori zitzaion.

— Beharra, beharra! —hoska hasi zen neska. Inor

ez zen etortzen. Nola edo hala zorroa astoari kargatu zion eta etxera negarrez heldu zen. Eta esan zuen:

— Aitona, Beharrari deitu diot eta ez da inor etorri. Astoa paretaren kontra jarri eta ez dakit nola jaso dudana.

— Horixe dun, ba, Beharra —erantzun zion aitonak.

KARTERA POLITAK

Bi emakume Frantzia aldean izan ziren. Bueltan bategen esan zuen:

— Bai kartera politak ikusi ditugula Frantzian. Barruan dirurik ikusten ere ez zaienak.

Mitxelenak erantzun zien:

— Frantziaraino joan gabe, hemen ere ikusiko dituzue horrelakoak.

ZAZPI ZAKUR

Oiartzuar ehiztari batek zazpi zakur zeuzkan. Mendi aldera bota eta hura sinfonia armatzen zutena. Auzo batek zakur jabeari esan zion:

— Nola daukazu zazpi zakur hauek etxean? Hauek jaten dutenarekin txekor ederra haz liteke.

Mitxelenak orduan esan zuen:

— Jaten dutenarekin ez, baina jango luketenarekin bai.

ZER ZENBAKI

Oiartzuar baserritar bat Nafarroa aldera joan zen, idiak eroatera. Tratua egin zuen eta Hernaniko kamioizale bati abisatu nahi zion. Taberna batera sartu zen eta nagusiari esan zion:

— Aizu! Mesedez deitu Hernanira eta esan berehala etortzeko nire idien bila.

— Zein zenbakitara deituko dut? —galdetu zuen nagusiak.

— Zuk deitu Hernanira. Berek badakite zer zenbaki den.

TXERRI MODERNOA

Pello Zalakain edo «Pedro Herrero» gaur Altzibereen «Herreronia» bezala ezagutzen den lantokiaren sortzailea izan zen. Gaurko errementari gazteen aitona. Errementaria zen eta era batera hiltzailea edo matarifea. Oso gizon zirikatzailea zen, beti norbaiti nondik adarra jo pentsatzen egoten zena. Baina emaleak hartu beharra izaten baitu, berari ere ederrak egiten zizkioten.

Garai hartan, txerria hiltzean, hiltzaileak puska batzuk eramateko ohitura zen. Isats puska bat, gibel puska bat eta beste horrelako piezatxo batzurekin fardel txiki bat betetzen zuten eta etxera. Hala zihoan behin gure Pello, bere fardeltxoa besapean. Ezkerraneko sagardotegian sartu zen. Sagardotegi hartan halako koadrilla batzen zen, beti zirikatzeke prest zegoen jendea. Gezur bat asmatu eta Pello udaletxera bidali zuten, mandaturen bat zela bide. Bitartean haren fardela hustu, asto gorotzez bete eta poliki-poliki berriz jartzen diote. Pellok bueltan bere fardela hartu eta etxera jo zuen. Etxera heltzean, emazteari esan zion:

— Bihar gosari ona jarri niri, eh! Hemen duzu jeneroa!

Biharamon goizean emazteak fardela ireki eta pentsatu zuen:

— Gizajo honi, atzo ere jo diote epela.

Baratxuri zopa jartzen hasi zen. Orduan Altzibar-ko errementariak jaten zituen baratxuri zopak oso fa-

matuak ziren. Pellok baratxuri zopa ikustean, amorruez esaten dio emazteari:

— Zer jartzeko esan nizun nik? Hau al da nik ekarri nuen fardela?

Emazteak ez zeukan esateko usterik, baina egia esan behar izan zion:

— Tori, bada, zure fardela, tentel arraioa. Nahi baduzu bazkaria jarriko dizut horiekin.

Pellok egun asko pasatu omen zuen Exkerraneko sagardogegira agertu gabe.

NON DIRA NERE PURUAK?

Manolo Baraibar ere Ezkerraneko koadrilakoa zen. Harro omen zebilen, bere puru ederren propaganda nonahi zabalduz. Norbait purua erretzen ikusten bazuen, hark berehala:

— Nik horiek baino hobeak dauzkat etxean.

Behin lagun batek nazkatu eta zeinek hobeak desafiatu zuen. Manolok baietz eta gainera non zeuzkan ere esan. Norbaitek, tabernatik aitzakiren batez sagardotegitik irten, haren etxera joan eta emazteari puruak eskatu zizkion:

— Zure gizonak ba omen ditu hor, gelako arma-
rioan, puru batzuk eta emateko esan du.

Handik zazpi egunera edo, zirikatzailea purua erretzen doa kalean.

— Honelakorik ez daukak hik etxean.

— Edukiko ez ditut ba? Berdin-berdinak gainera —esan zion Manolok.

Apustua egin eta Manolo korrika etxera. Baina han ezer ere ez.

— Non dira nere puruak?

Egun batzutan ez omen zen sagardotegira agertu.

ORTZAIZE - NAFARROA BEHEREA

MUTIL BURUTSUA

Mutila eta nagusia behin mendira joan ziren. Mutila pixka bat burutik eskas zen. Bidean harkaitz handi bat ikusi zuen eta mutilak esan:

— Koño! Zer harria! Nork ezarri du hori hor?

— Gure Jainkoak —esan zion nagusiak. Eta mutilak orduan:

— Zer indarra duen astapito horrek!

Beste behin mutil hau eta nagusia arto jorran ari ziren. Bazen auzoan gizon txar bat, Gilen izena zuena. Baina hil zen hura ere. Nagusiak esan zion mutilari:

— Gilen hil duk.

— Gizon gaixoa! Ez al dugu gehiago ikusiko?

— Ez —erantzun zion nagusiak eta mutilak segidan:

— Zer alukeria egin duen!

APEZAREN PREDIKU TRISTEA

Ortzaizen bazen apez bat oso zorrotza eta estua. Behin prediku hauxe egin zuen:

— Ortzaizetar maiteak; Izan naiz auzo herrian, Arrosan. Bihotza txiki-txiki egina ari izan naiz komunioa ematen. Herriko neska gazteak galtzerdi motzetan, erropak izter zainetan gora eta Jesukristo gure Jau-nak pausatu behar zuen lekua, zikindua. (Ezpainak gorriturik esan nahi zuen).

Beste behin apez hau gogor ari zen predikuan, haurrak kateximara berandu zetozelako.

— Horiek hire menekoak dituk, ba! —esan zuen gizon batek atzetik. Apezak ez zuen aldaretik ongi entzun. Bai ordea herritarrek eta irri egin ere.

BUHAMEA ETA MUTIKOA

Bada Ortzaizen buhame bat, Peio Abadiano deitua. Behin mutiko txiki batek, sei urte bakarrik zituen mutiko batek, esan zion:

- Zu buhamea zara.
- Zer esan duk hor, mutiko?
- Zu buhamea zarela.

— Nork esan dik hori, mutiko?

— Neronek pentsatu —erantzun zuen mutikoak.

Hura ez da txibatoa izango.

ZALDIBIA - GIPUZKOA

Zaldibi bertsolari herria izan da eta ez gutxiago bertsozale herria. Izan da eta orain ere hala da. Oraingo Zaldibiko bertsolaririk ezagunena Patxi Iraola dugu. Inguruko bertsolari gazteek hura aitortzen dute maisu eta laguntzaile. Ez dira gutxi lehenengoz Patxi Iraolarekin plazaratuak. Halakoxe laguna izaki. Iraolarren aita ere bertsolaria zen eta ez nolana hikoia. Bertsolaria ez ezik, bai ateraldi eta gertaera politak ere. Pello Iraola zen bera.

Behin Pello Iraola, mutikoa zela, aitarekin Lezora erromes joan zen. Beraz, ez dira atzoko kontuak. Teletxeko Martixio ere andregaiarekin omen zihoan. Ordiziko geltokian, Martixio abarketak eroatera joan zen. Bien bitartean trena abiatu zen. Martixio hoska eta

orroaka hasi zen. Makinista ikaratu zen eta trena gel-ditu zuen.

Handik urte askotara, Pello, Biandetxe eta Marti-xio berriketan ari ziren. Lezorako erromesaldi hartaz ari ziren. Biandetxek Pellori esan zion:

— Hi ari haiz, ba, orain ere duela berrogeita hamar urteko kontuak esaten eta atzokoak ahazturik egongo haiz.

Pellok erantzun zion:

— Hi lasai. Ni ahazturik banago ere, gure etxean egongo dituk (dira) gogoan dauzkatena.

Hemen agertzen den Biandetxe oso famatua da Zaldibin. Haren izenak urteak eta agian mendeak iraungo du zaldibitarren gogoan. Denbora gutxi barru eman-go ditugu Biandetxe honen berri xelebreak.

NOLAKO BELARRIAK

Misioak ziren Zaldibin. Lasarteko mojen kaperaua etorri zen sermoilari. Eztarri ederrekoa izaki, garbi eta indartsu predikatzen omen zuen. Sermoi ondoren, Pello, Astotxo eta beste batzuk etxeruntz zihoazen. Bentaberrin sartu ziren. Sermoi ederra bota zuela, eztarri ederra zeukala eta abar esaten ari ziren. Pellok esan zuen:

— Bai! Abots ederra benetan. Hori Gorozkintxuko puntan jarri eta Haitzartetik entzungo nuke nik.

Orduan Astotxok esan zuen:

— Nik Gorozkintxuko puntan tiro egin eta Haitzartetik ez nuke entzungo.

Pellok erantsi zion:

— Baina astoak belarri ondoan uzkerria egingo balizu, entzungo zenuke.

KOMERIAK IKUSI BEHAR

Pello Iraola Bentaberriko tabernan barreka sartu zen. Bidean astoa zaldi gainera igota ikusi zuen.

— Zer duzu, gizona? —galdetu zioten.

Eta Pellok kontatu zuen:

— Zer dudan? Hemen oraindik komeriak ikusi behar ditugu. Emakumeneko etxe hartan gauza xelebrenren bat jaioko da. Astoa ikusi dut zaldia estaltzen, txalma eta guzti.

KATARRO LATZA

Martin tapaukiz (bufandaz) ondo jantzia ikusi zuen Biandetxek. Burua juxtuan ikusten zitzaion. Biandetxek galdetu zion:

— Zer duzu, ba?

Martinek: —Katarroa diat.

Biandetxek: —Berriz ere izango duzu, horrela zaintzen baduzu.

BIANDETXE ETA JOSE HAUNDIA

Ordizian azoka handia izaten zen asteazkenetan. Eguna han pasatu eta Zaldibi aldera zetozen. Azken partida Mielmarin egin zuten. Gero Jose Haundik Biandetxeri galdetu zion:

— Zer moduz?

Biandetxek: —Handien ondoan poliki oraindik.

Jose Haundik: —Hogeita hamar kilo baietz kendu pisutan.

Biandetxek: —Denentzat erronda bat ezetz.

Baskulara joan ziren. Biandetxe jarri zen eta 57 kilo. Ez zen, ez, pieza handia. Jose Haundi jarri zen eta 120 kilotatik gora. Baskulak ez zuen hartzen. Jose

Haundik esan zuen:

— Toki ederrean gelditu haiz.

— Egon pixka batean. Berriz pisatu behar diat nik.

Pisatu zen eta berriz ere 57 kilo. Biandetxek orduan esan zuen:

— Ikusten duk? Hik ez didak niri ezer kendu. Lehengoa pisatzen diat orain ere.

URTSUBIREKIN TEMAN

Urtsubirekin maiz haserretzen zen Biandetxe. Urtsubi baserri haundia zen. Ganadu asko zeukan eta diruz ondo samar zebilena zen. Biandetxek irabaziala gatatzen zuen, baina tarteka milako batzuk edukitzen zituen. Urtsubiri esan zion:

— Zuek diru hotsa bai, baina hemendik mugitu gabe izateko, zeinek gehiago.

Urtsubik esan zion:

— Ordu beteko epea ematen badidazu, ekarriko dut nik dirua.

— Ordu beteko epea ematen badizut, zu Urtsubikortera joango zara.

Beste hango etxe bat da hori.

Urtsubik: —Gure etxean ere bada dirua.

Biandetxek: —Ni behin joan nintzen eta mila duro

eskatu nituen. Orduan ez zegoen asko, ez baitzenidan eman.

IDIAK ETA ITZAINA

Mamuneko Martinek idi pare ona edukitzen zuen. Behiak beste etxe batzutako modukoak, baina astoa eta idiak beti onak. Martin hori idiei hizka eta hoska ari zen beti:

— Aida! Ooo! Goazen! Hona! Aurrera! Gora! Behera! Geldi! eta abar.

Biandetxek behin Martini esan zion:

— Martin, idi onak izango dituzu, baina zuk esaniko denak egiten badute lana.

ZEANURI - BIZKAIA

IKATZETIK BIHOTZERA

Dozena erdiren bat zeanuritar ikatza banatzen ari ziren Gasteizen. Ezetz eta baietz, begira zer bururatu zitzairen. Zaku hutsak burutik ipini eta Dato kalean zehar ibili. Emakume dotore baten ondoan jarri eta berriketan hasten ziren. Ukitu eta besotik heldu ere bai. Emakumeak bezturik gelditzen ziren. Pentsa ikatz banatzaileak nola ibiltzen diren. Emakumerik gehienek ez zekiten nola erreakzionatu halako kortejatzaileen ondoan. Zenaauritarrak zirkuan zebiltzan Dato kalean. Emakume bat haserretu zen eta salatu zituen. Agoazilak etorri eta erdiak preso sartu zituzten. Beste erdiek ihes egitea lortu zuten.

PIXONTZIEKIN ZIRKULAZIOAN

Badira portzelanazko pixontziak. Lurrezkoak edo buztinezkoak ere bai, baina gehienak zuriak. Zeanuritar batzuk pixontzi bana buruan jarri eta Gasteizko plaza batetan zirkulazioa ordenatzen hasi ziren. Jendeari erraro samar iruditzen zitzaion, baina obeditzen zuen. Zirkulazioa laster ataskatu zen. Hura turutu hotsa eta eskandalua armatu zena! Egun hartan inor detenitu gabe apartatu ziren zeanuritarrak.

TRAIZIO GARESTIA

Lau zeanuritar Gasteizen zebiltzan. Kafetegi batean zapatagarbitzaile bat ikusi zuten. Berehalaxe plana egin zuten:

— Batek zapatak garbitzeko eskatu. Bukatu eta zenbat galdetu. Honenbeste esaten duenean, zapatagarbitzaileari belarrondoko bat eman eta ihes egin. Beste hirurak atean egon. Bat hori ihesi doanean, atea kanpotik itxi eta gero denok hanka joko.

Hala pentsatu eta Fabian jarri zen boluntario. Egin ondoren, belarrondoko eder bat eman eta ihesari eman zion. Kanpoko lagunek, ordea, berari itxi zioten atea.

Fabian barruan gelditu zen eta hura jipoia hartu zuena gaixoak! Ez zen berehala sendatu.

Koadrila honetako bi lagunek bi pisutako autobusa alkilatu zuten Bilbotik Zeanurira etortzeko. Bata goiko pisuan eta bestea behekoan heldu ziren. Kapritxo garestia, ordaindu gabe ihes egin ez balute.

Hauetariko bat galtzontzilo hutsik kioskora igon zen eta erromeria beroen zegoenean, propaganda hauxe egin zuen:

— Entzun, entzun! Burusoilentzat orraziak eta besamotzentzat eskularruak.

ZEBERIO - BIZKAIA

ARDOA HILTZEKO

Zeberiotar bat hiltzen zegoen. Apezak elizakoak ekarri zizkion: komunio, oleazio, etab. Ohaburura makurtu eta leunki esan zion:

— Egunon. Zer moduz dago gure gizona?

Agureak begiak erdi-irekiz esan zuen:

— Hori baino hobe kantara bat ardo ekarri balu.

IRRATIKO GIZONTXOAK

Irratia nobedade handia izan zen Zeberion ere. Jainkotxo bat zen hura. Zeberioako agure bat sinetsirik zegoen irrati barruan jendea bizi zela. Etxea suak hartu zuen eta irratia erre zen. Gizona triste zegoen.

— Irratia ere erre zaigu —esan zuen andreak.

Gizonak gaineratu zuen:

— Irratiak ez dit niri penarik ematen, barruko gizontxoek baizik.

TELEBISTAKO SORGINAK

Telebista ere badaezpadakoa zen Zeberion. Neska bat galtzerdi luzeak jaisten hasi zen. Gorainoko galtzerdiak ziren. Hauek erazteko, gonak jaso behar. Sukaldean zen hori eta telebista martxan zebilen. Amonak agiraka egin zion neskari:

— Neska! Ez al zara lotsatzen horren aurrean galtzerdiak jaisten?

Amona honek irratiak esaten zuen:

— Noiz egingo ote dute errosarioa euskaraz dakiena?

Emakume honentzat egunkaria ere bazen zerbait. Etxeko mutilak egunkaria ekarri zuen. Amonak berehalaxe eman zion destinoa. Mutila ohartu zenean, esan zion:

— Zer darabilzu, amona? Gaurko egunkariaz paketea egiten?

— Atzokoa ere hor izango duzu —erantzun zion amonak.

APEZGAI POSTARIA

Mutiko bat apez joan zen edo eraman zuten. Apezgaitegian kartak zentsuratik pasatu behar ziren. Behin zeberiotar apezgaiak karta batzu eraman zituen isilpean, Bilbon botatzeko. Trenetik jaitsi eta «El Correo Español» egunkariaren furgoneta ikusi zuen.

— Hemen korreoa —pentsatu zuen. Eta hantxe bota zituen bere kartak.

ZEGAMA - GIPUZKOA

HURA PERRETXIKOA

Antonio Bolasek kontatzen zuen:

Behin perretxiko asko zegoen eta asto eta guzti joan nintzen. Perretxiko handi bat aurkitu nuen. Ganibet txikiz orpotik ebakitzen hasi nintzen, baina ezin. Astoa perretxikoari lotu eta motozerra bila joan nintzen. Korrika etorri nintzenerako, astoa itota zegoen. Perretxikoa hazi egin zen eta astoa zintzilik zegoen.

BEDERATZI ETA HUTS

Beste behin:

Gaur futbolean izan naiz. Bederatzi eta huts geratu dira. Postean hiltze bat zegoen eta baloiak hantxe jo du. Bederatzi puska egin eta denak batera barrura sartu dira. Eta arbitroak ontzat eman.

GASOLINDEGIA LAINOETAN

Antonio Bolasek Valentziara zihoala esan zuen abioiz. Biharamonean:

— Ez naiz ederki ibili. Banindoan ttar-ttar eta gasolina bukatu. Lainoz laino bultzaka ederki eraman dut. Baina lainoak gastatu dira eta orduan gaizki. Gasolin-degi bat derrigor jarri behar da hor goian.

POXPOLO SALDA

Norbaitek poxpoloak txarrak direla esan zuen. Pozoina dutela. Antoniok orduan:

— Bai zera! Ni mutikoa nintzela, orain 70 urte, poxpolo bila joan nintzen. Kaja bat eskatu eta bi eman zizkidan. Gero ostatuan ez zegoen janik. Bi poxpolo kajak atera eta haiexekin salda egiteko esan nion tabernandrearari. Egin zuen eta, zerbitu beharrean, gari jostzeko makinan pasatu zuen. Salda lodi-lodia atera zen. Galburu batzu bota eta paella bezalakoa geratu zen. Kafe ordez, perrexil salda bi kopakin eta ttaka! Ez dago horrelako janaririk, on eginez gero.

PETRAREN PORRA

Duela 30 urte Antonio peoi zebilen Robertorekin. Txurreriako etxea egiten ari ziren. Porra behar eta beti Petrari eskatzen zioten. Baina Petra nazkatu zen eta gehiago ez ziela utziko esan zuen.

Antoniok litro erdi jokatu zuen, baietz ekarri. Joan zen eta:

— Petra, Petra! Robertori eskua harrapatu dio parretak eta porra behar da.

Petrak:

— Jesus! Bai porra eta porra ziriak ere!

Antonio lasai zihoan obrarantz. Petra gezurraz ohartu zen, baina berandu. Biharamonean berriro Antoniok:

— Petra! Barka atzo burla egin nizulako. Sekretu bat esango nizuke, baina... Ez dut esango. Beno, igoal esan ere. Baina ez inori esan gero! Paret zaharra botatzen ari ginela, kutxa zahar bat agertu da, urrez betebetea. Baina ontzako batzu zirriturik behera joan zaizkigu. Utziko al diguzu porra?

Bai eta utzi ere Petrak. Eta Antoniok beste litro bat ardo irabazi.

ZUMAIA - GIPUZKOA

KEREJETAREN ASMAKIZUNAK

Kerejeta anaiek untzigintza bat zeukaten Zumaian. Segundo Kerejeta batez ere beti ari zen zerbait asma-tzen. Abioiak hasi zirenean, berak ere aireplanoak egi-tea pentsatu zuen. Zumaiako Talaimenditik Debarai-no heldu behar zen. Kerejeta bata eta Isidro sartu zi-ren pilotu. Beste Kerejeta Deban zegoen zain, musika banda eta guzti, etxoferoz edo txapliguz ondo hornitua.

— Bultz oraintxe! —hotsegin zuen Kerejeta pilotuak.

Aireplano berria ez zen itxasora ere heldu. Haitz ar-tean erori zen eta pilotuentzat istripu gogorra. Beste Ke-rejeta oraindik Deban dago musika jotzen.

Segundo Kerejetak untzi berri bat asmatu zuen.

Brankaz edo aurrez bota beharrean, alboz botatzekoa. Zarauzko hondartzan zen aproba. Bazen han txanpanik ere ugari. Ordua heldu zen eta Kerejetak hotsegin zuen:

— Ea mutilak!

Erdia bakarrik joan zen uretara.

Kerejetak esan zuen:

— Ez da gutxi. Hurrengoan osoa.

BERO ETA FRESKO

Jose Mari Kerejeta taberna batetan ari zen zerbitzen. Oso bero egiten zuen eta hura pajarita eta guzti zebilen, ederki trajeztatua.

— Ez al duzu berorik? —galdetzen zioten.

Eta hark erantzun:

— Bero? Ni fresko nago. Ez da hainbeste. Eta baltz ere, eustea irabaztea da.

Horrelako gauzak esaten ari zela, norbaitek urruti samarretik zerbait eskatu zion. Kerejetak mostradore gainetik gorputza luzatu beharra izan zuen. Orduan agertu zen haren freskura. Gerritik behera galtzontzilo hutsik zegoen. Ai zer traje bitxia, osorik ikusia!

KRISISA ETA LANA

Kerejeta anaien untzigintzan ere krisisa zen. Lana gutxitu zen. Orduan Kerejetak langileei lur sail bat markatu eta agindu zien:

— Honenbeste metrotan hauxe zulatu.

Hasi ziren lanean eta egunak aurrera zihoazen. Langileen artean eta herrian esaten zuten:

— Kerejetak orain ere badu burutazio berriren bat.

Zuloa bukatu zenean, anaia batak besteari esan zion:

— Zer iruditzen zaik?

Eta besteak:

— Oso ondo. Orain berriz bete. Baina ondo saku, lur guztia bertan sarturik.

Denak harriturik zeuden.

— Zertarako egin duzu hori? —galdetu zioten langileek.

Eta hark erantzun:

— Bestela gaizki ohitzen zarete.

AURKIBIDEA

Abadiño-Bizkaia	7
Ahetze-Lapurdi	13
Ariatza-Bizkaia	15
Arrasate-Gipuzkoa	19
Arteaga-Bizkaia	23
Ataun-Gipuzkoa	29
Baigorri-Nafarroa Beherea	37
Bera-Nafarroa Garaia	41
Berriatua-Bizkaia	45
Dima-Bizkaia	49
Elgeta-Gipuzkoa	55
Elorrio-Bizkaia	59
Ereño-Bizkaia	63
Ezkio-Gipuzkoa	67
Gabiria-Gipuzkoa	73
Galdakao-Bizkaia	77
Garizuma	81
Goizueta-Nafarroa Garaia	85
Heleta-Nafarroa Beherea	95
Iholdi-Nafarroa Beherea	99
Lauro-Bizkaia	103
Lazkao-Gipuzkoa	107
Oiartzun-Gipuzkoa	111
Ortzaize-Nafarroa Beherea	117
Zaldibia-Gipuzkoa	121
Zeanuri-Bizkaia	127
Zeberio-Bizkaia	131
Zegama-Gipuzkoa	135
Zumaia-Gipuzkoa	139



EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

Esterlines, 10
Tf. 426319
Donostia

Pannecau, 52
Tf. 254390
64100 Baiona